2016/06/30

KULTURA
ALTERNATIBOA

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUA

JOKIN TELLERIA JULIAN
GRADU AMAIERAKO LANA

# *Kultura alternatiboa eta oinarrizko kultura sustatzeko plataforma*

# AURKIBIDEA:

1. SARRERA 4

2. XPRESSIONK 6

2.1. Hastapenak
2.2. Zer da Xpressionk?
2.3. Bilakaera

3. GUNE IREKIAREN EDO OPEN SPACE-AREN METODOA 12

3.1 Gune Irekia
3.2 Printzipioak eta bi oinen legea
3.3 Beharrak

4. KA PLATAFORMA 16

4.1 Hastapenak
4.2 Testuingurua
4.3 Zer da KA?
4.4 Sorrera
4.4.1 Open Space#1
4.4.2 Etena
4.4.3 Open Space #2
4.5 Xedea eta ikuspegia
4.5.1 Xedea
4.5.2 Ikuspegia
4.6 Helburuak
4.7 Ezaugarriak
4.8 Zer EZ da KA?
4.9 Elkarte batean edo bestelako entitate batean bilakatu?

5. CANVAS EREDUA 45

5.1 Barne ikuspegitik
5.2 Kanpo ikuspegitik

6. EREDU KLASIKOA 52

A) Produktu edo zerbitzuaren deskribapen laburra
B) Produktu edo zerbitzuak asetzen dituen beharrak
C) Proiektuaren berezitasunaren definizioa
D) Proiektuaren faktore baldintzatzaileak
E) AMIA Analisia
F) Proiektuaren gaur egungo egoera
G) Merkatu eta konpetentziaren analisia
H) Entitatearen organigrama eta zerbitzuen tipologia
I ) Eskainitako produktu edo zerbitzuaren deskribapen teknikoa
J) Marketing-a eta Social Media Plana
K) Merkatuaren ikerketaren txostena
L) Konpetentziaren ezaugarriak
M) *Xpressionk* egoera balantzea
N) *KA* egoera balantzea

7. PROIEKTUAREN BEREZITASUN NAGUSIAK 66

8. DATOZEN ERRONKAK 68

9. LANAREN BALORAZIO PERTSONALA 70

10. BIBLIOGRAFIA 72

11. ERANSKINAK 73

12.1 Hainbat proiektu
12.2 KA Topaketak
12.3 Lantaldeak
12.4 Partaidea
12.5 Prentsa

# 1. SARRERA

Lan honekin hasteko, nire ibilbide pertsonalaren laburpen motz bat kontatzen hasiko naiz. Egia esan, lan honetan aurkezten dudan proiektua, *KA|Kultura Alternatiboa*, martxan dagoen proiektu bat da, eta nire ibilbide osoaren kulminazioa dela esan genezake. Proiektu hau, batik bat nire kultur bizitzako arloan izandako nire esperientziaren emaitza dela uste dut, horregatik, oso komenigarria ikusi det, oso labur bada ere, nire ibilbidea azaltzea sarrera gisa proiektua hobeto azaltzeko.

Jokin Telleria naiz. Berez Lasarte-Oriakoa, eta Donostian bizi naiz duela urte batzuk geroztik. *Landaberri* ikastolan (Lasarte-Oria) ikasi nuen 8.maila arte, eta 14 urtetik 18 urteetara *Santo Tomas Lizeo*ra "bidali" zidaten gurasoek (pixka bat behartuta, egia esan, lagunak *Lasarte-Oriako Institutoa*n gelditu bait ziren).

18 urterekin, nire bokazioa zein zen jakin gabe (nahiko galduta nenbilen, ez da arraroa adin horrekin), goi mahaiako ikasketa ziklo bat egin nuen: Kudeaketa Komertziala eta Marketing-a, *Cebanc-Cdea*n (Berio, Donostia).

Bitartean, nire familiaren baserri batean, Lasarte-Oria-Urnieta inguruan, bateria jotzen hasi nintzen oso gaztea nintzelarik, eta musika talde bat sortu genuen koadrilako batzuen artean. Honela, musika eta kultura munduan murgildu nintzen, pixkanaka.

Ikasketetara bueltatuz, *Cebanc-Cdea*n egindako kurtsoaren praktiketako tutorearekin erlazio ona izan nuen. *Mieletxe* izena zuen praktiketako enpresa, eta bertan izandako esperientzak asko lagundu zidan, alde batetik enpresa mundua lehenengo pertsonan ezagutzeko, eta bestetik, erlazio sakona garatu nuelako Manuel Gonzalezekin (tutorea), gainera, nire mentorean bilakatu zen.

Beraz, enpresa mundua gustatu zitzaidala ikusirik, Goi Mailako zikloaren ondoren, Unibertsitatean hasi nintzen, Enpresa ikasketetan. Praktiketan izandako esperientzak asko lagundu zidan ikasketa hauek aukeratzeko orduan.

Baina aldi berean, pixkanaka, ekintzailetasunean hasi nintzen ere bai, hilabete batzuk lehenago ezagutu nuen (eta lehen komentatu dudan) tutorearekin. Ekintzailetasun hori *Mieletxe* enpresak egiten zuen sektorearen inguruan izan zen: ostalaritzako produktuen distribuzioa (eztia eta esne kondentsatua batik bat). Baina hortik lasterrera, komentatutako ostalaritza sektorea utzi, eta Manuel Gonzalezekin batera proiektu berri bat sortzen hasi ginen: *Xpressionk* izenekoa.

*Xpressionk*-en helburu nagusia, artista ez profesionalen azaleratzea zen (da), hauei espazioak eskainiz, eta edozein espazioetan kulturaren kontsumoa normalizatuz. Laburpen moduan: artearen normalizazioa gizartean, alegia. Kultur proiektu hau, pixkanaka, geroz eta garrantzitsuagoa bihurtu da nire ibilbide pertsonal eta profesionalean, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Beraz, eta nire gustu pertsonaletara bueltatuz, ia betidanik musika munduan murgilduta ibili naiz, talde batzuetan jo izan det bateria (*Zama, Louise Michel, Oreindik*, kolaborazio ezberdinak). Gaur egun ordea, eta nire ibilbidean musika estilo ezberdinak jorratu ondoren, betidanik gehien gustatu zaidan musika mota egiten saiatzen ari naiz: musika organikoa eta elektronikoa uztartzen dituena.

Musika, ikasketak eta kultur kudeaketaz aparte, paraleloki eta *Xpressionk* proiektuaren garai berberan, beste enpresa batean ere ekintzaileetasunarekin hasi nintzen. Enpresa hau, *Infotechnalia* izenekoa, aurrezki kontsultora bat da, eta energia kontsumoaren ikerketa inpartzialak egiten ditu, ETE-ei zuzenduta dagoelarik batez ere.

Beraz, ikasketekin partekatuz, 3 zutabe nagusi izan dira nire bizitzan 18 urte nituenetik aurrera: **kultur kudeaketa** (*Xpressionk*), **musika eta kultur munduarekiko afizioa** (bateria, musika taldeak) eta **enpresa** (ikasketak eta *Infotechnalia* enpresa). Esan beharrik ez dago, kultur arloa izan dela gehien motibatzen didan gaia, gustu pertsonalen eta kultur kudeaketaren nahasketa bat sortzen delako, baina ezinezkoa suertatzen zait enpresa ikasketek eta enpresan jasan deten jakituria ahaztea, hauek gabe ezinezkoa izango nuen aurrera eraman gaur egun martxan dauden proiektu guztiak, aurrerago ikusiko dugu moduan.

Horrela, nire ibilbideari errepaso txiki bat eman ondoren, gaur egungo egoerari dagokionez zera esango genuke: komentatutako ikasketak eta proiektu guztiak aurrera joan direla gaur egun arte behintzat, eta martxan jarraitzen dutela.

Ikasketei dagokionez, Gradu Amaierako Lan honekin batera, Kultur Kudeaketa Master bat egiten ari naiz, eta baita ere Donostia 2016 Fundazioak beka bat eman dit Kultur Kudeaketa Perfekzionamenduko Kurtso batzuk egiteko, bertan, Partaidetzan Oinarrituriko Kultur Kudeaketa, Kulturaren inpaktuak, eta antzeko gaiak jorratzen dira, nire ikuspuntutik, oso interesgarriak eta baliagarriak direnak.

*Xpressionk*-ri dagokionez, ia 13 urteren ondoren, oso kontsolidatuta dago kultura alternatibo eta oinarrizko kulturaren ingurunean. Kolaboratzaile asko ditu eta 400/500 jarduieretan parte hartzen du urtero. Beti ere, bere filosofia mantenduz, eta oinarrizko kultura sendotu asmoz, eta bide batez, artearen normalizazioa bilatuz.

*Infotechnalia* enpresak, bere lehen urteetan hainbat aurrezki kanpaina garrantzitsu garatu zituen: *Hostelería Gipuzkoa, Agipan-Adegi, Tolosaldea Garatzen Garapen Agentzia,etab.* Hauekin, bezero askoren lorpena gauzatu ziren, eta enpresa kontsolidatu ere egin zen. Gaur egun ordea, merkatuaren saturazioarekin, enpresak bere merkatu kuota mantentzen doa, eta bezero berrietara iristeko estrategia berriak bilatzen dago enpresa.

Laburtuz, esan genezake, nire ibilbidean gurutzatu diren adar guztietatik ikasi detela: ikasketak, musika eta kultur munduarekiko afizioa, enpresa, kultur kudeaketa,... Honekin esan nahi det, oso ondo etorri zaidala esperientzia guzti hau. Gainera, ikuspuntu eta izaera personal bat garatzeko balio izan zait, kritikoa, justoa, eskuzabala, eta abar.

Ibilbide honekin, beraz, nolabaiteko tesi propio bat garatu det, nire esperientzatik abiatuta. Tesi hau, garapen soziala, kolektiboa, kulturala, artistikoa eta abar kontutan hartzen ditu. Proiektu honen izena *KA|Kultura Alternatiboa* da.

# 2. XPRESSIONK

## 2.1 Hastapenak

2003 urtean, Usurbilen, *Olarrondo* izeneko Jatetxe bat ireki zen. Jatetxearen jabe ziren senar-emazteak, baserri oso handia zela ikusirik, Manuel Gonzalezekin (bizilaguna eta laguna izanik) kontaktatu zuten ideia eske. Manuelek, kulturarako espazio bat bideratzeko gomendatu zien. Beraz, baserrian bertan, *Jazz Kalea* izeneko areto txiki ipini zuten. Manuel izango zen areto honen programazioaren arduraduna, eta nire praktiketako tutore ohia zenez, nirekin kontaktatu zuen bion artean aretoaren programazioa aurrera eramateko.

*Irudia: Olarrondo Jatetxearen inaugurazioko prentsa oharra*



Algunos conciertos serán en Jazz kalea de Olarrondo. [JOSU ARANBERRI]

**Inauguración del circuito de jazz en Olarrondo**

**DV.** USURBIL

Ayer se inauguró el centro de Ocio Multifuncional con actuaciones en el local *Jazz Kalea* del centro de Ocio Olarrondo en Usurbil. Desde este centro se ha creado una asociación cultural que bajo el nombre *Xpression!!* esta creando cuatro circuitos integrados por locales de toda Gipuzkoa (más de 30 locales). En el circuito de jazz y blues habrá 10 locales y 40 músicos. Entre los locales que colaboran están Banako de Hondarribia, Altxerri de San Sebastián, Salatxo de Orio etc. En cuanto a los músicos, junto a diferentes grupos actuarán combos formados por alumnos de las escuelas de jazz (Jazzle, Musikene la escuela municipal de San Sebastián). En la organización de este circuito cuentan con la colaboración de Iñaki Salvador como especialista en jazz y los patrocinadores serán Cafes Betiko y Heineken. En junio, se grabará un CD con los grupos del circuito.

*Iturria: http://www.xpressionk.net/ / El Diario Vasco*

Batik bat, musika programatzen hasi ginen *Jazz Kalea* aretoan. Jazz eta blues kutsuko musika zen hein handi batean han programatzen zena, jatetxea nahiko kalitate onekoa zen, eta bertan programatzen zena tokiarekin ondo elkarbizi behar zuen. Asteburu
ro, ostiral eta Larunbatetan antolatzen ziren kontzertuak, gehienak inguruko musikariekin, baina baita ere kanpotik etortzen ziren taldeekin. Pixkanaka ere, pintura erakusketa antolatzen hasi ginen, eta beste adar batzuk ikutzen hasi ginen: umorea, antzerkia, eta abar.

Esperientzia honekin hartu genituen lehen sentsazioak, nahiko esanguratsuak izan ziren. Musikari asko zegoen kontzertu eta espazio eske, beren musika adierazteko nahiarekin. Gainera, erakusten zuten maila oso altua zen. XIX mendeko azken hamarkadetan, hezkuntza musikala dexente handitu zen, eta hori azken urteetan asko nabarmendu da musikari eta artista ez profesionaletan. Beraz, aretora etortzen ziren musikari kantitatea, eta hauek zeukaten maila, ezusteko oso positiboak izan ziren guretzako.

Gauzak horrela, oso modu naturalean, espazio horretatik salto egiteko pausoa hartu genuen. Existitzen ziren musika talde eta artista kopurua ikusirik, baita ere, zeukaten gosea eta espazio beharra ikusirik, areto eta espazio berriekin hitzegiten hasi ginen. Zirkuitu moduko bat egiten hasi ginen, eta formalki, kultur elkarte bat osatu genuen.

*Irudia: Xpressionk elkartearen filosofiaren zutabea*




*Iturria: http://www.xpressionk.net/*

*Xpression* marka jarri genion elkarteari (ondoren *"k"* letra gehitu genion, pixka bat euskeratzeko eta *Kultura* hitza erreferentziatzeko, *Xpressionk*-en bilakatuz), eta 4000 ekimen baino gehiago antolatu ditugu azken 13 urte hauetan. Kontzertuak, erakusketak, antzerkiak, magia emanaldiak, eta abar.

*Irudia: Xpressionk elkartearen musika eskaintza*




*Iturria: http://www.xpressionk.net/*

**2.2 Zer da *Xpressionk*?**

*Xpressionk*-ren definizioa horrela zehaztuko genuke:

Kulturaren sustapena da *Xpressionk*-ren jarduera nagusia, horretarako edozein esparruko artista ez profesionalei (musika, arte eszenikoak, plastikoak, eta abar) lekuak bilatu eta eskaintzen saiatzea da ekintza nagusia, horrela, bertan beren lan artistikoak kalera ditzaten.

Edozein espazio egokia da ekimen hauek aurrera eramateko, askotan gutxi erabiliak, eta bertan jendea izaten da, hala nola tabernak, lorategiak, jatetxeak, komertzioak, hondartzak, eta abar. Hala bilatu behar ez den kultura bat sortzen dugu, zuzenean jendeak aurkitu egiten du, eta gainera erabat doan.

Aktibitateek zirkuitu, jaialdi, ziklo, erakusketa… itxura izan dezakete, oinarrizko kultura normalizatzea lortu nahiz, eta batez ere Euskal Herrian bizi den jendearentzako (eta baita ere bisitan datozenentzat). Hauek dira *Xpressionk*-ren dinamika zehazten duten gidalerroak:

- **Eskuragarritasuna ikuslegoarentzat**. Publikoarengandik ahalik eta gertuen eginez ekimenak (askotan kalean bertan) eta doan.

- **Integrazioa**. Ez baitira artista, gune ez kolaboratzailerik alboratzen, proiektuarentzat onuragarri den edozer (gutxi bada ere) ekartzen badute. Aldi berean mota guztietako ikuslegoa integratu nahi da, inolako alborapen geografikorik gabe.

- **Errekurtsoen optimizazioa**. Gutxi erabiltzen diren espazio edo guneak aprobetxatuz eta baita artisten kostu urria kontutan hartuz. Askotan artista hauek ez dira profesionalak baina beren kalitatearen maila profesionala da.

- **Oreka**. Enpresak bezala pentsatu eta artistek bezala sentitu.
Enpresa kudeaketa (marketing, dinamika komertziala, departamendu estrukturazioa, errekurtsoen "inbertsioa" eta kudeaketa etab.)

-**Sormena.** Sortzen ari diren ekimen eta artistak detektatu eta lagunduz.
Helburua: Gizartean dagoen eta ezagutzen ez den, kultura aktiboa sustatu eta kaleratzea.

*Irudia: Xpressionk elkartearen eskaintza artistikoa*




Iturria: *http://www.xpressionk.net/*

**2.3. *Xpressionk*-ren ibilbidea**

Honela, 13 urte ondoren, hauek izan dira *Xpressionk*-ek antolatu dituen ekimen nabarmen batzuk (Egitarau osoa: *http://www.xpressionk.net):*

- ***XPRESSIONK*** ekimenak (2003-AKT.)
Artearen kontsumoaren normalizazioa urte osoan zehar era edozein lekutan.
4. 000 ekimen baino gehiago.

- ***IKUSI ARTE*** (2004-AKT)
Urtero egiten den erakusketa. 80 artelan Zarauzko 80 dendetan (erakusleihoetan).

- ***GOSPEL ZIKLOA*** (2005-AKT)
Gospel kontzertuak elizetan. Gabonetan zehar ospatzen den zikloa (Euskal Herrian eta Autonomi gehiagoetan)

- ***JALGI KAFE ANTZOKIA*** (Lasarte-Oria) 2006-2012
Urte osoko egitaraua: musika, plastika, antzerkia, diaporamak, bertsoak,…

- ***COCA-COLA ekimenak*** (2008-AKT)
800 ekimen inguru ostalaritza aretoetan: Euskal Herria, Kantabria, Burgos,…

- ***TTAKUNTRONIK*** (2009-2011)
Estilo guztietako eta dantzatzeko musika, herriko espazio ezberdinetan bapatean (hilean behin). Ttakun Kultur Elkartea eta Udalarekin elkarlanean.

- ***UDA-FUNK CHILLIDA LEKU*** (2009-2011)
Funk estiloko kontzertuak Hernaniko *Chillida-Leku*-n egun ezberdinetan zehar.

- ***MUSIKA MERKAGUNEAN*** (2009/10)
200 kontzertu kalean, 2 asteetan zehar (Donostia). Eusko Jaurlaritzaren laguntza komertzioaren dinamizaziorako.

- ***SAN MARKO GOTORLEKUA*** (2009-2011)
Udarako kontzertuak San Marko gotorlekuan (Errenteria)

- ***UDABERRI FEST*** (2013-14)
Musika Jaialdia Zarautzen, bertako musikariekin, talde ezagunak eta amateurrak tartekatuz

- ***KA | KULTURA ALTERNATIBOA*** (2012-AKT)
Proiektuaren sustatzaile eta koordinatzalile de Xpressionk. Geroago aztertuko dugu hobeto KA.

**- *OLATU TALKA- ROMPEOLAS / DONOSTIA 2016*** (2012-AKT)
Talkalive/Kontzertour ekimenaren koordinatzaile nagusia. Asteburu batean 100 ekimen antolatzen datza ekimena, Olatu Talka jaialdiaren asteburuan.

- ***KULTUR KALE ZIKLOA*** (2012-AKT)
Herriko espazio ezberdinak lantzen dira artea herritarrei gertutatzeko. Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean

- ***GOURMET GAUAK*** (2012-AKT)
Bazkalondo eta afalondoetako kontzertuak Zumaiako jatetxeetan. Zumartian ostalaritza elkartearekin eta Zumaiako Udalarekin kolaborazioan.

- ***KULTURAKZIO (2016)***
Hiri eta herrietako herritar eta eragileek kultur bizitzan parte aktiboa izateko prozesua. Open Space eta bestelako metodoak erabiliz hasten den proiektua da.

- **HAINBAT JAIALDIETAN KOLABORATZAILE:** *Euskal Metal Fest, Open Rock Gaua, Altzatarock, OSELE16, Gau Zuria Zumaia, Musikaren eguna* (Donostia ), eta abar.

# 3. GUNE IREKIAREN (OPEN SPACE) METODOA

2012 urtean topaketa bat antolatu genuean Gune Irekiaren metodoa erabiliz *Xpressionk* eta *Gune Irekiak* elkarteok elkarlanean. Ideia nagusia hau zen: jakitea jendeak zer pentsatzen zuen Euskal Herriko Artearen Mugimenduari buruz. Beraz, arte diziplina guztiko jendea gonbidatu genuen, eta nahi zuen edozeinek ere gonbidatua zegoen (eragileak, norbanakoak, instituzioak, eta abar.).

Aurrerago ikusiko dugun moduan, esperientzia hau, nire ikuspegia aldatu zuen kultur kudeaketari dagokionez, baina hau hobeto ulertzeko, goazen gehiago jakitea *Gune Irekia* metodoari buruz.

*Irudia: KA Topaketa#1 (Doka Antzokia)*



*Iturria: http://kulturaalternatiboa.com/*

## 3.1 Definizioa

Hau da, *Gune Irekia* edo *Open Space* elkarrizketa metodoari buruzko definizio bat*:*

***"Zer da Gune Irekiko Teknologia?***
*Gune Irekiko Teknologia (GIT edo GI, laburtuta) era guztietako jendeari edozein motatako antolakundeetan bilera eta topaketa argituak sortzen laguntzeko modu bat da. Argi geratu da, halaber, 1985etik-edo, espazioa irekitzeak, nazioarteko aitzindaritza-praktika intentzional gisa, jende arruntak elkarlanean jardungo duen antolakunde argituak sor ditzakeela eta jarraitasunez emaitza ezohikoak sortzen lagundu dezakeela.*

*Gune Irekiko bileretan, topaketetan eta antolakundeetan parte-hartzaileek beraiek sortzen eta kudeatzen dute euren agenda, hau da, garrantzi estrategikoa duen gai nagusi baten gainean aldi berean emango diren lan-saio paraleloak. Gaia izan daiteke, esaterako: zer estrategia, talde, antolakunde edo komunitate babestu dezakete edo sortu daiteke lankidetzan parte-hartzaile guztien artean?*

*5 eta 2000+ lagunekin -egun bateko lantegietan, hiru eguneko topaketetan edo asteroko lan-bileran- honako hauxe da ohiko emaitza: antolakundean jada gertatzen ari dena (plangintza eta ekintza, ikastea eta egitea, pasioa eta erantzukizuna, parte-hartzea eta jarduna) konektatzea eta indartzea."* **Herman, M. (2012)**

Oso garrantzitsua ikusten dut Gune Irekiaren metodoa ondo azaltzea, lan honetan aurkezten ari naizen *KA* proiektuarekin harreman oso estua daukalako metedologia honek: batetik, *KA*-ren jaiotza *Gune Ireki* batean suertatu zen, eta bestetik, gaur egun ere *Gune Irekia*-ren printzipio eta legeak **(Harrison Owen, 2008, 91. orrialdea)** mantentzen dituelako *KA*-k.

Gune irekia metodoarekin, oso denbora laburrean eta jende kopuru oso alturekin, gai bati buruzko ideia onenak lortu daitezke. Nahi izatekotan, hitzegiteko gai zerrendak, arlo ezberdinetan antolatu daitezke, gaiak hobeto jorratzeko.

Elkarrizketa mota hauetan, parte hartzaileek hitzegiteko gaiak proposatu dezakete, bilera hasieran indizea kolektiboki lantzen delarik. Gune Irekiek, egun erditik, 2 egunetarainoko iraupena izan dezakete. Beraz, ordutegi bat finkatzen da, gai konkretu bazuekin, eta gai ezberdin hauek bilera ezberdinetan banatzen dira, batzuk bapatean (denbora berean) suertatzen direlarik.

Nahi duenak, momentuoro mugitu daiteke, baita atseden hartu, kafe bat hartu, etab. Hau da, erabat librea da bakoitzaren jarrera eta konpromisoa, ulertzen delako, nahiz eta pasiboki izan, bakoitzak bere modura zerbait aportatzen ari dela Gune Irekian.

### 3.2 Gune Irekiaren printzipioak eta bi oinen legea

**Gune Irekiaren 4 printzipioak:**

1) **Gune Irekira agertzen den edonork, pertsona egokia da**. Hau da, etortzearekin hartu duen lanarekin bakarrik egokia.

2) **Edozein gauza gertatzen ari dena, daukagun bakarra da**. Ez kezkatu zer pasa ahalko litzatekeen, bertan gertatzen ari denaz bakarrik kezkatu.

3) **Elkarrizketa (Gune Irekia) hasten den ordua, ordu egokia izango da**. Honek laguntzen du agenda itxi bat ez izatea, eta kreatibitatea eta berrikuntza ahalbidetzen du.

4) **Gune Irekia bukatzen denean, bukatu da**. Honek laguntzen du partaideek denbora ez galtzea, eta horrela, ikusten badute gai bat ez dela eraginkorra izango, gaiaz errexago aldatuko dute.

*Irudia: Open Space#2 (Doka Antzokia)*



*Iturria: http://kulturaalternatiboa.com/*

**Lege bakarra: 2 oinen legea:**

Edozein momentutan ikusten baduzu ez duzula ezer gehitzen elkarrizketari, aspertzen zarela, ez zaudela ikasten, zure oinak erabili eta beste talde batera joan zintezke, edo zerbait hartzera, edo atsedena hartzera… Inork ez luke egon behar aspertzen dion bilera batean, interesa duten gaietan egon beharko luke jende guztiak.

### 3.3. Beharrak

Bestalde, beharrezkoa da gutxienez fazilitadore bat, aurkezpena egiteko eta antolamendua eramateko. Baita ere, espazio bat behar da, partaide kopuruaren arabera handiago edo txikiagoa izango dena. Hitzegiten den guztia akta batzuetan idaztea komenigarria da, gero guzti hori ordenatzeko eta konklusioak ateratzeko, beraz horretarako jendea ere beharko da.

Oso ohikoa da janaria eta edaria ipintzea parte-hartzaileentzako. Beraz, gosaria eta bazkaria antolaketaren kargura joaten da askotan. Azken finean, parte-hartzaileen erosotasuna eta lasaitasuna bilatzen da horrelako topaguneetan, horrela askoz ere eraginkorra izango bait da emaitza.

*Irudia: KA Topaketa#12 (Kafe Botanika, Donostia)*



*Iturria: http://kulturaalternatiboa.com/*

Oso garrantzitsua da, *Gune Irekia*ren ondoren, partaideen posta elektronikoak jasotzea, eta bertatik ateratako idei, proposamen, oharrak eta abar guztiei bidaltzea. Horrela, denok jakingo dute zertaz hitzegin zen *Gune Ireki* osoan. Gainera, nahi duenak, aktak errebisatu eta moldatu egin ditzake, berriro, guztiei bidaliaz.

Beraz, argi ikusi dugu *Gune Ireki* bat zer den. Gai nagusi bati buruz hitzegiteko eta ideiak jasotzeko metodo oso ireki eta dinamikoa.

Zergatik ikusi dugu nola funtzionatzen duen *Gune Ireki* bat? Ba, hein batean, *KA* plataformak ere horrela funtzionatzen duelako. Esan genezake, *KA Gune Ireki* iraunkor bat dela. Adibidez: *KA*-ren baitan bi oinen legea askotan gertatzen da, jende asko segituan lantaldez, edo proiektuz aldatzen da ez dagoelako gustora. Oso irekia eta librea da beraz *KA*-ren funtzionamendua , *Gune Ireki* bat bezalaxe.

# 4. KA PLATAFORMA

## 4.1. Hastapenak

**Inspirazioa:**

Lehen inspirazio momentua, 2012-an antolatu genuen *Open Space*-ean izan zen. Nire koadrilako *Xavi Minguez*-ek, elkarrizketa metodoen garapenean aditua da. Psikologia ikasi zuen eta gatazka ebazpenetan doktorea da. Honekin, kulturari buruzko *Gune ireki* edo *Open Space* bat egitea bururatu zitzaigun. Aurrerago ikusiko dugu lehen pauso honen xehetasunak.

Bigarren inspirazio momentua, eta *Open Space*aren ondoren, kirolarekin zerikusia dauka. Asko gustatzen zait korrika egitea, *footing* lasai lasai egitea. Lasaitasuna ematen dit, forma mantetzeko ere baliagarria zait, baina batez ere, dena perspektiba ezberdinarekin ikusteko balio dit korrika nagoen bitartean. Hau da, gauzak garbiago ikusten ditut eta akziorako ideiak ematen dizkit. Horrela, egun batean korrika nenbilela, artea eta elkartasuna, modu libre batean garatzeko kontzeptua etorri zitzaidan burura.

**Ideia:**

*KA*, guztion proiektu bat da, horizontala eta inklusiboa. Artistek eta eragileek beraiek dira *KA*-ren parte, eta modu berean *KA* da beraiena. Guztion sinboloa da, eta horrek, indar asko suposatzen du proiektu bat garatzeko.

*KA* ez dauka egoitzarik, ez du NIF zenbakirik, ez du lehendakaririk,…behar hauek izatekotan, beste plataforma batzuen antzerakoa izango zen, eta *KA*, zerbait ezberdina da, IDEIA bat da, KONTZEPTU bat.

Plataforma honen helburu nagusia, kultura alternatiboa eta oinarrizko kultura sustatzea da.
Zer da kultura alternatiboa? Esan genezake, arlo instituzionaletik eta komertzialetik at dagoen kultura guztia. Nire ustez, kulturaren arlorik handiena, hau da , kulturaren %99-a dela esango nuke. Horregatik, *ikusezina den kultur*a dela esaten dugu. *KA*-k hori azaleatu nahi du, ikusezintasun hori,

Hemen **Mihaela Radulescu**-k (2012) *kultura alternatiboa*ri buruz egindako definizioa:

*"Kultura alternatiboa erresistentzia kultura bat da, eta kutura ofizialari aurre egiten dion heinean, identitate propio bat garatzen du mugak gainditzeko eta inposizioak saihesteko. Ikuspuntu personal bat izatean datza, pentsatzeko, adierazteko, komunikatzeko, erlazionatzeko eta modu ezberdinean jarduteko apostua eginaz."*

Beraz, *KA*, komentatutako nire ibilbide osoaren ondoren eta *Open Space* baten ondorioz suertatutako ideia bat da, lehen inspirazio horiek izan ziren *KA*-ren lehen pausoak, baina, hortik aurrera, garrantzitsuena faltako zen: idei horren *transpirazioa*, egia bilakatzea, alegia.

## 4.2 Testuingurua

Orain arte, lan honetan nire ibilbide pertsonala (Sarrera), *Xpressionk* eta *Gune Irekia*ren metodoa ikusi dugu, baita ere kultura alternatiboaren definizio bat, guzti hauek ezinbesteko gaiak lanaren gaia jorratzeko. Baina proiektu honen testuinguruaren berri izatea ere ezinbestekoa da.

Aurrerago, eredu klasikoaren bitartez oinarrizko kultura eta kultura alternatiboaren inguruneari buruz datu batzuk ezagutuko ditugu, baina *KA* ondo azaldu baino lehenago, honen testuingurua pixka bat azaltzea beharrezkoa ikusten dut. Baita ere, testuinguru hau nahiko modu subjetktiboan azalduko detela onartu behar det. Adibidez kultura arloan lan egiten duen funtzionario batek, beste ikuspegi bat izango du *KA*-ren testuinguruari buruz.

*KA*-ren testuingurua, Euskal Herriko eta batez ere Donostialdeko mugimendu artistikoan oinarritzen da. Mota guztietako artista eta eragileak daude “ikusiezin” egoera batean, errekurtso falta nabariarekin, eta inolako sostengurik gabe.

Instituzioek eta merkatuek, kultura kuantitatiboki neurtzen dute ( arrakasta, publiko kopurua edo sarreren arabera). Bi elementu hauek (Instituzioek eta merkatuek) botere asko dute bai komunikazioan, produkzioan, eta abar, eta ondorioz, entretenimenduaren  industriak espirituaren, meditazioaren eta hausnarketaren *espiritua*ren gain erortzen dira. Baliagarria dena, beharrezkoa ez denaren gain. Beraz, **Cesar Antonio Molina**-k (2010) dioen bezala, kultura bera, industria batean bilakatzen da, elementu mediatiko-komertzial batean, nazio garatuen motorrean bilakatuz.

Gauzak horrela, desoreka nabarian aurkitzen da kulturaren arlo nagusia: oinarrizko kultura. Denborarekin, kultura alternatiboan bilakatzen ari da, ez erabaki propioagatik, behartuta baizik. Aurrerago azalduko dugunez, oinarrizko kulturaren aktoreak ez dira soilik artista hasiberriak edo ez profesionalak direnak, baizik eta gizarte batean gertatzen den kulturaren gehiangoa: adin guztietako artistak, edozein adar artistiko edo sozialeko eragileak, edozein motatako ekimenak, eta abar.

Beraz, zer egin daiteke egoera honen aurrean? Mugimendu artistiko baten beharra dago, baina egoera honi aurre egingo dion proiektu bat, filosofia eta helburu eraldatzalearekin. Argi dago horrelako zerbait, soilik elkartasunaren bidez egin daitekeela, hau da, bakoitzak bere aldetik ibili ezkero, ezer gutxi egin ahal izango da.

### 4.3 Zer da KA?

*“Imaginatu hiri bat, goitik ikusita, perspektibarekin. Orain, imaginatu argi punttutxo batzuk, asko dira eta hiri osoan sakabanatuta daude. Baita ere, argi punttu horiek izartxo batzuk direla pentsatu, bakoitzak bere argi propioa daukalarik, autonomoki. Izartxo horiek, hirian dauden artistak eta beren espresio artistikoak izango lirateke, bakoitzak bere kolore, ezaugarri, tamaina,… ezberdinekin. Bukatzeko, izartxo hauen konstelazio bat irudikatu, guztiak batzen dituena eta juntu ikusarazten dituena.*

*Konstelazio hori KA izena du, eta konstelazio soil bat baino askoz ere gehiago da: elkarrizketa espazio kolektibo bat, elkartruke foro bat, filosofia librea duen plataforma irekia, proiektu bateratuak gauzatzeko erraminta, errekurtsoak bideratzeko eta kanalitzatzeko tresna,….......”*

Hau ni neu egindako idatzia da *KA*-ren metafora gisa konstelazio bat erabiliz. Proiektua bisualizatzeko, konstelazio bat askotan etortzen zait burura, eta berez, proiektua badauka *erakunde-konstelazio*ekin zeinbat parekotasun. Adibidez, *erakunde-konstelazio*etan, bertan daudenen aktoreak, zeregin ezberdin jokatzeko aukerak izan ditzakete (bi oinen legearekin antzekotasuna daukalarik), eta beraz, dauden erakundearen informazio asko jasan dezakete ikuspegi ezberdinetatik **Gunthard Weber-** ek (2000) dioen bezala.

Beraz, *Xpressionk*-en urte askoko ibilbidearen ondoren, proiektu bat etorri zitzaidan burura. Lanean, kultur munduan eta ikasketetan jasandako jakituri guztia biltzen zuen proiektua zen, eta ilusio handiarekin hasi nintzen honetan lan egiten. Baina, oso kontutan hartu beharreko datua: proiektu hau modu kolektiboan garatu beharra zegoen, bestela, ez luke izango inolako zentzurik.

**Definizioa:**

*KA*, elkartasuna, partaidetza eta ikusarazpenaren bitartez, kultura alternatiboa eta oinarrizko kultura sustatzeko helburu nagusia duen plataforma da. Horretarako, hausnarketa, elkarrizketa eta akziorako “espazio” bat sortu da, aldi berean: irekia, horizontala, dinamikoa, iraunkorra, librea, kritikoa eta antolatua dena.

Urtebete eta erdiko garapenaren ondoren, 300 artista, eragile eta norbanakoengatik osatuta dago *KA*, eta martxan dauden proiektu guztiak helburu nagusi berdina dute (lehen komentatutako helburu nagusia). *KA*-ren beste helburuen artean hurrengoak aurkitu ditzazkegu:

- Gabeziak aurkitu eta konpontzea.
- Errekurtsoen lorpena
- Elkartruke foro bizi eta konstantea.
- Proposamenak, ekimenak, eta bestelako akzio ezberdinak modu bateratuan sortzea.
- Kultura behetik gora azaleratzea

- Insitutuzioekin interlokuzio lana
- Ikusarazpen artistikoa
- Eta abar.

**Datu batzuk:**

- 300 Kide *KA*-n. bertan eragileak, artistak eta norbanakoak daudelarik.
- 16 Topaketa eta 2 *Gune Ireki* (*Open Space*) orain arte.
- *Xpressionk* elkarteak koordinatu eta kudeatu egiten du plataforma.
- Bertako kide izateko, soilik inskripzio orria betetzearekin nahikoa da (bai webgunearen bitartez, bai paperean).
- Ez dago inolako baldintzarik *KA*-ren parte izateko eta doanekoa da.

***KA*-ren funtzionamendua:**

Topaketa periodikoak egiten dira hilean behin elkarrizketa kolektiboen bitartez (*KA* topaketak, *Open Space*, *World Cafe*…). Topaketa hauek guztiz irekiak dira, eta nahi duenak parte hartu dezake.

Topaketa hauetan jende berriari *KA* esplikatzen zaio eta prozesu guztiari gainbegirada bat ematen zaio. Baita ere, erabaki nagusiak bertan hartzen dira. Parte hartu ezin duenek, emailez informazioa bidali eta bere ikuspuntua eman ahal izaten dute, horrela beraien proposamen edo ideiak kontutan hartzeko.

Proiektua guztiz horizontala eta librea da, eta erabakiak guztien artean hartzen dira. Diziplina artistiko eta persona guztiak parte hartu dezakete *KA* plataforman, kode etiko bat eta plataformaren ezaugarriak eta helburuak beti ere errespetatuz.

**Nortzuk osatzen dute *KA*?**

*KA*-ren kide diren artista/eragile/norbanakoengatik eta beraien ekintza artistikoengatik osatuta dago *KA*. Kide guzti hauen barruan badaude aktiboak (topaketetara joaten dira eta ekipoetan parte hartzen dute) eta pasiboak (ez dute topaketetan eta ekipoetan parte hartzen) direnak. Oso kontzeptu garrantzitsua da nabarmentzeko, *KA*-ren baitan ez dagoela partaidetza mailarik, hau da, bait aktiboak zein pasiboak garrantzi berdina dute. Gainera, *KA*-n partaidetzaren kontzeptua oso berezia da. Plataforma honetan artista bat bere kabuz artelan edo ekimen at garatzea bere kabuz, parte hartzea da, beraz, azken finean bakoitzeak kultura alternatiboa eta oinarrizko kultura nahi duen bezala sustatzen du.

*Irudia: KA-ren kontzeptu-mapa*




*Iturria: Iturria: http://kulturaalternatiboa.com/*

**KA-ren estruktura (Horizontala)**

Guztia *KA* Topaketetan erabakitzen da, erabakiak Topaketetara joaten direnen artean hartzen bait dira. Topaketetara joaten ez dena, idatziz eman dezake bere iritzia (emailez, sare sozialen bidez…).

Baita ere, lan taldeak sortzen dira *KA*-ren proiektuak eta arloak aurrera eman ahal izateko.
Guztien artean irizpide orokorrak erabakitzen direnean, lan taldeek autonomia izango dute lan egiteko orduan.

**Lan taldeak**

Momentu honetan hurrengo lan taldeak daude:

- Komunikazioa
- Web diseinu eta edukiak
- Diseinu orokorra
- Stop War festibala (*www.stopwarfestibala.com*)
- KA ikusentzunezkoak
- GazteKA (Gazteak)
- KA fanzinea (KAzeta28)

- KA Zuzenean
- #100KA (100 ekimen 2016 urtean)
- Euskera
- KA koordinazio taldea
- Plastik@ (Arte adar plastikoa garatzen duten artistez osatua)
- KA Donostia Kultura

**_KA_-ren proiektuak**

- KA Topaketak
- Stop War Festibala
- #100KA (100 ekimen 2016 urtean)
- KA fanzine (KAzeta28)
- KA Zuzenean ekimenak
- GazteKA
- KA-ko artisten ikustarazpena
- IAUJA! (Ingurugiroaren aldeko Umeentzako Jaialdi Artistikoa)
- Zumea KA Fest (Andoaingo Jaialdia)
- Eta abar.

**Nola parte hartu _KA_-n**

*info@kulturaalternatiboa.com* helbidearen bitartez lehen kontaktua egin daiteke. Inskripzio fitxa bete ahal izango da eta *KA*-ren kidea bihurtu berehala, *KA*-ri buruzko informazio guztia jasoz. Baita ere, altan emateko eta info gehiago, webgunean: *http://kulturaalternatiboa.com/*. Dena den, topaketetan eta bestelako bileretan, inskripzio orriak ere izaten ditugu, paperean bete ahal izateko. Beraz, *KA*-n inskribatuta egonik, plataforman egiten den guztiaz informatuta egongo dira kide guztiak, askatasun osoz ideiak edo proiektuak proposatzeko aukerarekin.

Irudia: KA-ren eskema orokorra




Iturria: http://kulturaalternatiboa.com

### 4.4 *KA*-ren Sorrera

Plataformaren definizioa eta helburuak ikusi ondoren, sorreran zentratuko gara orain. Garrantzi handia du puntu honek, batez ere *KA*-ren esentzia erakusten duelako. Hau da, *KA* proiektu kolektiboa da, modu kolektiboan jaio zelako.

### *4.4.1. Open Space #1. Euskal Herriko mugimendu artistikoaren etorkizuna (2012/02/11)*

Lehen komentatu izan dugu *Gune Irekia* metodoaren garrantzia *KA*-ren baitan, horregatik ondo esplikatu dugu elkarrizketa mota honek dituen abantailak. Esan bezala, *KA*, *Gune Ireki* iraunkor bat bezala definitu dezakegu, izan ere metodo honen filosofia berbera bait dauka. Logikoa da orduan, *KA* proiektua Gune Ireki batean jaio zela adieraztea, hala izan bait zen.

2011 urtean, nire laguna den *Xavier Minguez*-ekin hizketan, Euskal Herriko kulturari buruzko Gune Ireki bat egitea bururatu zitzaigun. Xavier aditua da horrelako metodoetan, eta gainera, *Gune Ireki*etan ere oso aditua den *Eleder Aurtenetxe*-k askotan kolaboratzen duenez berarekin, ekimen honetara ere azaldu zen. Beraz, Xavi-k Gune Irekiarekin esperientzia handia izanik, eta nik kulturaren alorrean kontaktu asko izanda, *Gune Ireki* bat egitea adostu genuen.

**Espazioa**

Gune Ireki hau gauzatzeko, Donostiako *DOKA Antzokia* espazio egokia izango zela pentsatu genuen. Espazio zabala, ahulkiak eta mahaiak eskuragarri, soinurik gabe (gure artean ondo entzuteko), denbora asko egoteko aukera (Gune Irekia egunez antolatzen da, eta *DOKA*-k, normalean arratsalde/gauean irekitzen ditu ateak) eta gainera, aretoaren arduradunak ezagutzen genituen, beraz, *DOKA* leku aproposa zen *Gune Ireki*rako. Agian, ezaugarri bat falta zaio espazio ezinhobea izateko: argitasun naturala, baina kasun honetan ezinezkoa zen.

**Komunikazioa**

Beraz, *Gune Ireki*rako gaia, espazioa, eta kolaboratzaileak prest genituen, ezinbesteko osagaiak elkarrizketa kolektibo mota hau gauzatzeko. Hurrengo pausoa, komunikazioa lantzea zen: kartelaren diseinua, ekimenaren leloa, data eta xehetasunak, sare sozialak, eta abar.

Nire ustez, jendeak ideien bat izango zuen *Gune Ireki*ari metodoari buruz, baina orokorrean ez zekien ondo zertan datzan. Dena den, komunikazioa lantzeko "*OPEN SPACE*" hitzei garrantzia ematea erabaki nuen. Zergatik? Idei nagusia azaltzen duelako, ingelesak irudi sofistikatu bat ematen dio ekimenari, eta metodo hau, batez ere *Open Space* bezala ezagutzen delako, *Open Space Technology* bezala hain zuzen ere. Beraz, kartela landu genuen *OPEN SPACE* hitzak garrantzia nabarmena izanik, eta ekimenaren data baino 3 hilabeteko aurrerapenarekin komunikazioa lantzen hasi ginen.

Irudia: Open Space#1-eko kartela




Iturria: http://www.xpressionk.net/

Esan beharra dago sare sozialek garrantzi nabarmena izan dutela bai *KA*-ren sorreran, baita bere garapenean ere. Horrelako proiektu partehartzaile eta kolektiboak aurrera eramateko, oso egokiak dira erraminta sozial hauek. Proiektuaren berri emateko, interesatuekin feedback-a izateko, proiektuaren berri emateko, *KA*-ko kideen artean komunikatzeko, eta abar.. Azpimarratu behar da *KA* bera ere sare bat dela, eta sare sozialak erraminta oso garrantzitsuak bilakatu direla azken urteetan horrelako proiektuak garatzeko. Orain dela urte batzuk, sare sozialak existitzen ez zirenean, zailagoa zen jendearengana iristea eta horrelako sareak sortzea.

Baina baita ere, mundu “errealean” ere gaudela azpimarratu nahi dut, hau da, nahiz eta sare sozialak oso garrantzitsuak izan, topaketa, bilera, eta horrelako bilgune “fisikoak” egitea ezinbestekoa da, hau da, erraminta digitalak puntu bateraino sustatzen dituzte proiektuak, baina ez dute arrakasta bermatzen, ezta gutxiagorik ere.  Laburtuz, sare sozialak, komunikaziorako oso lagungarriak dira, baina honelako prozesuak aurrera eramateko, kontaktu bisuala eta fisikoa ezinbestekoa da.

**Gune Irekiaren eguna**

*Gune irekia*ren eguna iritsi zen, proiektu berria guztiontzat, urduritasuna, ”Jendea etorriko ote da?”, “Parte hartuko ahal dute?”, “Ulertuko ahal da *Gune Irekia* zer den?”. 3 hilabetez promozioa egin ostean, esfortzuak bere fruituak eman zituen. Jendeari “*OPEN SPACE*” hitzak interesa piztu egin zion, eta Euskal Herri guztitik jendea etorri zen: aktoreak, margolariak, musikariak, eragileak, instutuzioetako ordezkariak, eta abar.. Beraz, lehen pausoa emanda zegoen: jende askok interesa erakutsi zuen, eta *Gune Irek*ira azaldu zen.

*Irudia: Open Space#1 (Doka Antzokia, Donostia)*




*Iturria: http://kulturaalternatiboa.com*

Ekimena hasteko, biribil handi bat egin, eta elkarrizketa metodoa zertan datzan azaltzen hasi ginen, nondik datorren, zergatik da hain interesgarria, bere ezaugarriak, printzipioak, bi oinen legea,…eta baita ere, zergatik egiten genuen deialdi ireki hura. Zertaz hitzegin nahi genuen topagune honetan? Zertarako? Zein zen *Gune ireki* honen helburua?

Egia esan, *Gune Irekia*ren ezaugarrietako bat, ezustearena da. Partaideek idei nagusi bat daukate Gune Irekiari buruz, baina zehazki ez dakite zertan datzan metodo hau. Badakite irekia dela, kolektiboa, partehartzailea, baina gehienetan ezustean harrapatzen die partehartzaileei horrelako autokudeaketarekin landutako ekimena. Eta horrela izan zen, ezusteko bat izan zen guztientzat.

Batzarraren sarrera egin ondoren, eta jendea bere burua aurkeztu ondoren, *Gune Irekia*ren aurkibidearekin hasi ginen. Aurkibidea, ihardunaldi osoan hitzegiteko gaiak proposatuz osatzen da, partaideek nahi duten gaiak proposatu ditzakete, beraz, ekimen autokudeatua da guztiz. Ez dago gai zerrenda zehatz bat, partaideek osatzen dute hitzegiteko gai zerrenda guztia.

Honela, ordutegi bat zehaztu genuen: taldetxoak sortu ziren gai bakoitzerako, eta ordutegi bat zehaztu zen, egun osoko ordutegia. Horrela nahi zuen orok, nahi zuen taldera joaten zen nahi zuenaz hitzegitera, eta talderen batean ez bazuen ezer aportatzen, edo aspertu egiten zen, edozein taldera edo kafe bat hartzera joan zitekeen (*bi oinen legea*).

*Irudia: Open Space#1-eko aurkibidea (Doka Antzokia, Donostia)*




*Iturria: http://kulturaalternatiboa.com*

Gutxi gora behera, 6-7 ordu iraun zituen *Gune Irekiak*. Eguerdian, etenaldi bat egin zen bazkaltzeko, ogitarteko batzuk eraman genituen, eta lasai kafetxo bat hartzeko astia ere izan genuen. Goizean, 4 ordu eta arratsaldean 2-3 orduz egon ginen. Logikoa denez, goizean jende gehiago egon zen, ezin bait zuten egun osoan bertan egon, baina arratsaldean ere jende berria etorri zen.

Beraz, dena primeran zihoan, partaide asko, ideia asko, dibertigarria, interesgarria, konstruktiboa, eta bizipen oso berezia alde guztietatik begiratuta. Bertan, idei, proposamen, kexa, hausnarketa, eta mota askotariko oharrak bildu genituen. Esperientzia oso berezia izan zen guztientzako, eta hori garbi geratu zen bukaerako partaide bakoitzaren hausnarketan.

Esan bezala, bukaeran biribil handi bat egin genuen (haseran bezala) eta bakoitzak bere hausnarketak esan zituen: zer iruditu zitzaion esperientzia, proposamenak, hausnarketak, eta abar. Oso polita izan zen bertan esandako guztia. Jende guztia oso gustora egon zen, eta gainera jarraitzeko asmoz. Kritikaren bat ere egon zen, euskararen erabilerarekin adibidez, euskerak beti horrelako egoeratan galtzaile ateratzen zela komentatu zuen norbaitek (gaur egun, *KA*-rekin lanean gauden gai bat da hau, euskararen erabilera egoera hauetan nola bermatu alegia). Honela, ekimenaren itxiera egin genuen, partaide guztiei bere asistentzia eskertuz.

**Aktak**

Ekimena bukatzen denean, oso garrantzitsua den zerbait falta da oraindik: Gune Irekian hitzegindako guztia jasotzeko ordua izaten da. Horretarako, talde bakoitzean norbait egon da aktak hartzen. Zer dira aktak? Ba talde elkarrizketetan hitzegin den guztia apuntatuta gelditu behar du, bestela ez du inolako zentzurik topagunea egiteak. Esan bezala, ezinbestekoa da hau ondo egitea (haseran esplikatu dugu Gune Irekiaren definizioan). Gainera, edozeinek nahi dituen aportazioak egin ditzazke akta hauetara, eta aktak, guztion baieztapena izango dute (hau da, norbaitek ados ez badago, edozein aldaketa egin dezake). Gune Ireki honen kasuan adibidez, Tomás Tamayok, bere akta partikularrak gehitu zituen eranskin moduan. Horrela, bere ikuspegi propioa ere agertuko ziren akta hauetan.

*Irudia: Open Space#1-eko akten zati bat (Egilea: Tomas Tamayo)*




*Iturria: http://kulturaalternatiboa.com*

Hau izan zen, beraz, *KA*-ren sorreraren lehen atala. Bigarrena berriz, 2 urte eta erdi beranduago izango zen, 2014eko Irailak 27an *Open Space #2 Kultura Alternatiboa Euskal Herrian Gune Irekia*n, baita ere *DOKA* Antokian, Donostian.

### *4.4.2. Zergatik pasa zen hainbeste denbora lehenengo Gune Irekitik bigarreneraino?*

Hasieran komentatu bezala, niretzako 2012ko *Gune Irekia* oso inpaktantea izan zen. Ekimen honen ondoren, denetarik pasa egin zen nire burutik: *Xpressionk* bera eraldatzea, prozesu kolektibo batean bilakatuz, *Xpressionk* izateari utzi eta beste entitate irekiago batean bilakatzea ( izena aldatuz), eta abar. Gauza da, konturatu nintzela, kultur eragile bezala ez dela inoiz kontutan hartzen herritar, artista eta eragileen iritzia. Eta hau eragile guztiekin gertatzen da (publikoak eta pribatuak).

Geroz eta modan gehiago dagoen "partaidetza" kontzeptua inoiz ez da errealitatera pasatzen, zergatik? Oso konplexua delako herritarren iritziak, eta zaila delako hainbesteko iritzi eta sentsibilitate ezberdinak errelitatera eramatea. Horrela, bakoitzak "bere aldetik" joaten zen Euskal Herriko kulturari dagokionez (eta beste hainbat arloetan ere).

Beraz, 2012 urtetik 2014 urtera, lehen *Gune Irekia*n bizi izandakoa "kristalizatzen" joan zen neure buruan pixkakana pixkana. Batzar horretan bizi izandakoaz, ni batez ere, bi idei nagusiekin gelditu nintzen: elkartasuna eta oinarrizko kultura/kultura alternatiboa. Bi kontzeptu horiek oinarritzat edukita, ideia eta buelta asko eman nizkion buruari: *nola sortu dezakegu mugimendu bat, guztiona izanik, oinarrizko kultura eta kultura alternatiboa kolektiboki sustatuko lukeena?*

Logikoa denez, ez zen errexa horrelako zerbait errealitatera eramatea. Horregatik, zera pentsatu nuen: zergatik ez dugu beste *Gune Ireki* bat antolatzen, baina jada plataforma bat eskainiz, eta esandako 2 puntu horiek nabarmenduz? Hau da, bigarren *Gune Ireki* horretan, oinarri bat eskainiko genuen, marko bat, horrela pixka bat aurreratuagoa izango genuke hausnarketa lana, lehenengo batzarraren hausnarketa guztiak aprobetxatuz.

### *4.4.3. Open Space#2: Kultura Alternatiboa Euskal Herrian (2014/09/27)*

Gauzak horrela, 2 urte eta erdi pasa ondoren eta hausnarketa sakon bat egin ondoren, bigarren *Gune Irekia*ren deialdia egin nuen. Baina ezberdintasun nagusi bat zegoen lehen Gune Irekiarekin konparazioan: marko zehatz bat jarri genuen, horren gainean ideiak, hausnarketa eta proposamenak garatzeko.

Kasu honetan, markoaren kontzeptua oso garrantzitsua da. Marko hori izango bait da *KA*-ren oinarria, hortik abiatuko dira plataformaren izaera eta helburu orokorrak. Baina oso garrantzitsua da ulertzea eta barneratzea, markoa izanda, ez dugula ezer lortu oraindik. Hau da, ez baldin badugu inolako partaidetzarik (proposamen, idei, kexa, etab.) marko horren baitan, ez da ezer ere existituko.

Pentsa dezagun marko hori, plaza ireki bat dela. Nahi duen jende guztia joan daiteke plaza horretara, eta edonork nahi duena egin dezake bertan. Hitz egin, entzun, ezer ez egin, dantzatu,… Bapatean *Gune Ireki* batean aurkitzen gara, eta horixe da *KA*, *Open Space* iraunkor bat.

*Open Space#2* –ra bueltatuz, lehenengo *Gune Irekia*ren esperientzia bagenuen, eta horrek asko lagundu zigun. Promozioa oso antzekoa egin genuen, gainera, *Open Space#1*-eko diseinu berbera erabili genuen. Denbora asko hartu genuen promozioa egiteko, eta sare sozialak izan ziren gure erramintarik interesagarriena ekimena zabaltzeko (Aurreko kasuan bezala).

2014-eko Irailak 27-a iritsi zen, eta aurreneko kasuan bezala, jende mordoa etorri zen *DOKA* Antzokira. Kasu honetan, jendeak bazekien zein zen hitzegiteko gain nagusia, baina badaezpada, testuingurua eta gaia zehaztu genuen:

*"Testuingurua eta gaia:*

*1) 2012 urtean Open Space#1 egin genuen:*
*Gaia: EH-eko mugimenduaren Artistikoaren Etorkizuna.*
*Bertan, kultura alternatiboaren elkartasunaren idea indarra asko izan zuen*

*2) Xpressionk -> Proiektu bat bururatu: KA*

*Zer planteatzen du KA-k?*

*- Euskal Herriko kultura alternatiboaren beharrak zehaztu eta hauek konpontzeko akzioak planteatu*

*- Partizipazio kolektiboa: partehartzaileen idei eta proposamenen bidez*

*- Nahi duten guztiek parte hartu dezakete*

*- Xpressionk-ek KA-ren kudeatzaile hutsa da, ez da KA-ren egilea, ezta jabea ere. KA proiektua guztiona da, eta erabaki guztiak denen artean hartuko dira.*

*- KA proiektu gardena de zentzu guztietan: funtzionamenduan, filosofian, kudeaketan*

*- Proiektu guztiz heuristikoa da: guztiz moldagarria, bere izaera guztiz aldatu daiteke, bere izena, izaera administratiboa,… hau da, librea da.*

*- Foto aktibo bat izatea: artista, eragile, areto, instituzio, eta abar-en artean.*

*3) Nola aurrera eraman?*

*Gure proposamena hasiera batean Open Space metodoarekin bitartez abiaraztea da. Orain ezagutuko dezue metodo hau.”*

*Irudia: Open Space#2-eko kart*




*Iturria: http://kulturaalternatiboa.com*

Oso garbi zegoen, beraz, landu beharreko alorra. Markoa ipinita zegoen, eta plaza irekia prest, bakarrik jendearen edukina falta zen proiektua abiarazteko.

Esan genezake <u>*KA*-ren benetazko sorrera bigarren bilera honetan izan zela</u>. Hemen hasi egin bait ziren *KA* aurrera eramateko lehen haurnasketa eta ideiak. Eta hemendik aurrera, jarraipena ematen hasi genien topagune hauei, *KA Topaketa* bezala ezagutzen ditugunak. Eta hemen dago *KA* proiektuaren arrakastaren gakoetako bat: jarraipena ematea prozesuari.

## 4.5. *KA*-ren xedea eta ikuspegia

### *4.5.1. Xedea:*

*KA*-ren xedeari buruz hitzegiterakoan, ikuspegi ezberdinak aipatu ditzazkegu. Ezin dugu ahaztu *KA*-ren oinarri guztiak kolektiboki garatu direla, beraz, kasu honetan xede ezberdinak aipatu behar ditugu.

- Oinarrizko kultura ata kultura alternatiboa sustatzea
- Kultura soziala garatzea
- Herritarren partaidetza bermatzea bere iguruko kulturan
- Eraldatze soziala eta kulturala gauzatzea
- Ikusarazpen artistikoa aurrera eramatea
- Foro bat sustatzea Euskal Herriko kultura alternatiboan

### *5.4.2. Ikuspegia:*

Berdin gertatzen da ikuspegiarekin, baina iritzi ezberdinak egon daitezkeen arren, guztiok ikuspegi antzekoa daukagula esan genezake:

- "Behetik gorako" kultur bizitza garatzea Euskal Herrian
- Herritarrek partaietza aktiboa izatea bere inguruko kultur politika eta proiektuetan
- Arte sorkuntzaren normalizazioa
- Arte kontsumoaren normalizazioa
- Gazteen partaidetza aktiboa izatea hiri eta komunitateen kultur bizitzan
- Arte diziplina guztiak batzen dituen foro aktiboa
- Kultur eragile eta Instituzio guztiak elkartzen dituen foru aktiboa

*Irudia: KA Topaketa#2 (Doka Antzokia, Donostia)*



*Iturria: www.kulturaalternatiboa.com*

### 4.6. *KA*-ren helburuak

**KA-ren helburu nagusia:** kultura alternatiboa eta oinarrizko kultura sustatu eta indartzea., elkartasuna, ikusarazpena eta partaidetzaren bitartez.

**Elkartasuna**. Aurreko puntu nagusia lortuko da, guztiona den plataforma baten bitartez garatzen bada. Guztion artean ez bada, oso zaila da horrelako helburuak eraginkorrak izatea, horregatik garatu da hain proiektu ireki, garden eta partehartzailea.

**Ikusarazpen** kontzeptuak ere berebiziko garrantzia dauka. Sustatu nahi dena batez ere itzalean edo modu ikusezinean bait dago, beraz, ikusten ez den arte adierazpen eta eragile ehundura azaleratzen bada, asko irabazia izango du plataformak.

**Partaidetza.** Partaidetza kontzeptua (gaur egun oso modan dagoena), ere ezinbestekoa da. Hau, helburua baino, proiektuaren izaera propioan egon beharko luke. Hau da, gauzak ondo egin direlaren seinale eta elkartasunaren ondorio bat litzateke. Proiektua errotuta egon behar du bere kideengan, horrek proiektuaren arrakasta ziurtatuko bait du.

**Helburu gehiago:**

- **Gabeziak aurkitu eta konpontzea:** kultura eta artearen arloan oso gabezi ezberdin eta anitzak daude. Horregatik, lehenengo fase batean (eta modu iraunkorrean baita ere) gabeziak aurkitzea oso garrantzitsua da. Diagnosi bat egitea ezinbestekoa da ondoren gauzak hobetzeko. Adibidez, musikariek entsaiatzeko espazio falta izatea, margolariek sorkuntzarako lekurik ez izatea, aktoreek publikoa izateko zailtasunak, eta abar. Behin zein gabezi dauden jakinda, askoz errazagoa da estrategiak eta planak diseinatzea arazo horiei aurre egiteko.

- **Agenda bateratua osatzea.** *KA*-ren parte izatea oso konplexua eta sinplea da aldi berean. Bakarrik izena ematearekin (webgunearen bitartez minutu batean egiten da) nahikoa da, eta bakoitzak aukeratzen du noraino parte hartzen duen. Baina *KA*-ren filosofian, bakoitzak bere kabuz emanaldi artistikoak egitea ere *KA*-n *parte hartzea* da, eta hau modu bateratuan erakutsi nahi dugu. Hau da, bakoitza *K*A da, eta *KA* guztioi ordezkatzen digu, beraz, egiten dugun guztia, *KA* bezala erakutsi ahal du.

- **Ikusarazpen artistiko eta soziala.** Aurreko puntuarekin erlazio zuzena duen gaia. Agenda da helburuetako bat, baina ikusarazpena ere bai. Ikusarazpenean gauz eta ekimen asko azaleratu daitezke: artistak, eragileak, topaketak, batzarrak, bilerak, eta abar. Azken finean, kultura alternatiboan eta oinarrizko kulturan dagoen mugimendu guzti hori azaleratzean dago gakoa. Hau tresna ezberdinak erabiliz gauzatu dezakegu: sare sozialak (Facebook, Twitter, Instagram), kartelak, ahoz aho, mailing, medioetako agendetara bidaliz, eta abar. Baina oso garrantzitsua da mugimendu baten baitan dagoen zerbait dela azaltzea, *KA*-n gaudenok, zerbait komunean daukagula zabaldu behar da, eta horrek elkartasuna adieraziko du, *KA*-ren elementurik garrantzitsuena.

- **Eraldaketa soziala kultura eta artearen bitartez.** Plataforma libre eta ireki batean gaude, eta noski, eraldaketa kontzeptua proiektuaren funtseetako bat da. Ez da eraldaketa bilatzen helburu hutsa bezala, plataforma hau sortu da gauzak aldatzeko behar bat dagoelako, eta bakoitzak bere aldetik joan beharrean, elkarlanean joatea askoz hobea dela uste dugu.

- **Elkartruke foro bizi eta iraunkorra garatzea**. Oso helburu garrantzitsua dudarik gabe. Agian, ekimenak antolatu edo errekurtsoak lortzea baino interesgarriagoa. Azken finean gure artean hitzegin, errespetatu, kolaboratu, eta esperientziak partekatzea *KA*-k daukan altxorrik preziatuena da. Azkenean zer geratuko da guzti honen ondoren? Faktore ukiezkin guzti hauek, guztion artean sortutako harreman pertsonal eta kolaborazioak.

- **Datu base ireki bat garatzea eta eskaintzea**. Normalean (eta geroz eta gehiago), eti bata bestearengatik deskonektatuta egoten gara, eta garrantzizkoa ikusi dugu datu base ireki bat izatea guztion artean. Kasu honetan, Dropbox karpeta bat egin dugu plataformako kide guztien datuekin (emaila, telefonoa, eta abar), horrela errazagoa izango da guztion artean konektatuta egotea.

Bertan edozein motako kideak daude gainera, oso datu base anitza da, beraz, datu base hau ere aurrerantzean formatu gehiagoetan elkaranatuko da (webgunean, google drive,…).

**- Elkartrukeak eta kolaborazioak sustatu**. Hauek suertatzen badira, gauzak ondo egiren ari direlaren seinale da dudarik gabe, azken finean, ukiezin hauek garrantzitsuenak bait dira. KA-k marko edo espazio ireki bat ahalbidetzen du jende eta eragile ezberdinen artean elkartukeak eta kolaborazioak suertatzeko, baina hauek espontaneoki gertatu behar dira. Beraz, giro atsegina egotea ezinbestekoa da hau suertatzeko.

**- Artisten, eragile eta herritarren sare baten eraketa.** Sare baten eraketa, bakarrik onurak ekartzen ditu, aurreko punturarekin lotura izanik: kolaborazioak, indarren batuketa, errekurtsoen lorpena, etab. Sareak normalean dinamikoak izaten dira, *KA* bera bezala, eta horrek indargune asko dauzka: aldaketetara ondo egokitzea, irekiak izatea (kide berriak erraz parte hartzeko), muga gutxi izatea, etab.

Gaur egun, gizarteak geroz eta *likidoagoak* dira, dena geroz eta azkarrago suertatzen da, aldaketa askorekin eta horren aurrean dinamikoa eta malgua izatea bertute handia da gaur egun.

**- Kultura *behetik gora* hedatzea.** Plataforma ondo funtzionatzen badu eta bere filosofia kolaboratiboa eta irekia mantzentzen badu, bere inguruko oinarriko kultura eta alternatiboa behetik gora hedatuko da. Baina, horrek zer esan nahi du? Kontua da, kultura soziala eta demokratikoa, hirietako jende eta eragileek bultzatzen duten kultura izango litzatekeela, baina normalean kultur politikak bertikalki sustatzen dira, hau da, *goitik behera*. Honen eragina hiritar pasiboagoak bilakatzea da, eta ondorioz, oinarrizko kultura, alternatiboa ere izaten bukatzen du. Beraz, *KA*-ren helburuetako bat, gaur egun dagoen kultur kudeaketari aldaketa sakon bat egitean datza, baina prozesu baten bitartez, eta pixkanaka.

**- Eragile/artista/herritarren eta Instituzioen arteko *zubi lana* garatzea**. Guk oinarriko kultura, bere izenak dioen bezala, oso oinarrizkotzat hartzen dugu, eta asko zaindu eta sustatu beharrekoa da. Esan dugun bezala kultura artistikoaren %99-a oinarrizko kultura bezala ulertzen dugu, hau da, bertan ez daude soilik “hasten diren” artista gaztetxoak, baizik eta adin eta mota askotariko artista eta eragileak aurkitzen ditugu bertan.

Hau ikusita, oinarrizko kulturaren artista eta eragileek oso sakabanatuta egoten dira, ez dute topalekurik, eztabaida lekurik, eta ondorioz, ez dute inolako ordezkaririk Instuzioekin hitzegiteko. Zergatik da hau hain garrantzitsua? Ez baldin badago inolako elkarrizketarik Instituzioekin, Instituzioek oinarrizko kulturarekin nahi duten bezala eta beraiek nahi dutenean kontatuko dute, ia ia hondar-kultura bezala hartuko dute hau.

Baina ordezkari bat izan ezkero, guztion bozeragailu bat izanik, Instituzioekin eztabaida ba garatzeko aukera izango da, eta horietako kultur politiketan parte aktiboa izateko aukerak askoz igoko direlarik.

- **Eragile/artista/herritarren partaidetza sustatzea.** Lehen esan bezala, gaur egun oso modan dagoen kontzeptua da herritarren partaidetzaren kontzeptua. Adibidez, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren lema nagusia hauxe da: *Herritarren Energi-Olatuak*. Baina oso zaila da hau lortzea, helburua bera herritarren partaidetza bada (partaidetza badago, zerbait lortzeko izan beharko luke, herritarrei motibatzen dien eta beharra duten helburu bat lortzeko).

Eta gainera, "goitik behera" kudeatuko den proiektua izanda, herritarrek ez dira ergelak, eta badakite hori ez dela egia (herritarren partaidetzarena). Zeharka edo pasiboki modu askotan parte hartu dezake publikoa, bai, baina benetazko partaidetza, proiektuen prozesu osoan parte hartzeari deitzen zaio (hausnarketetatik, prozesua ixteraino).

Beraz, gure planteamendua herritarren ahulduntzea izango litzateke. Hau lortzeko gure proposamena ardatz ezberdinetan oinarritzen da: askatasuna, errotasuna, errespetua eta eraldaketa. Proposamena, noski, *KA* plataforma bera garatzea da. Baina kasu honetan, herritarrek badakite mugimendu ireki, horizontala, eraldatzailea, partehartzailea, eta inklusibo baten aurrean daudela.

- **Eragile, artista eta herritarren arteko elkartasuna sustatzea.** Helburuen artean kolaborazioak eta elkarlanak sustatzea ikusi ditugu adibidez. Kasu honetan ordea, elkartasunaz ari gara. Kontzeptu hau, KA-ren sorreran azaldu zen oinarrizko zutabeetariko bat izan zen. Elkartasuna, errekurtso oso indartsua da, hasteko, mamu asko xahutzen dituelako. Askotan ondoan ditugun eragile, artista eta norbanakoek konpetentzia bezala ikusten ditugu, baina idei horri buelta emate badiogu denok aterako gara garaile. Konpetitu beharrean, zergatik ez gara "lagun" egiten? Merkatu kapitalista baten ingurunean adibidez, normala da konpetentziak suertatzea, baina oinarrizko kulturan, hainbeste gabezi komunean izanda, pena merezi du? Ez. Hoberena, beraz, elkartasuna sustatzea eta guztion artean irtenbideak bilatzea.

### 4.7 Proiektuaren ezaugarri nagusiak

Ezer baino lehen, komeni da zehaztea proiektu hau *aktibismoan* oinarritzen dela, hau da, inork ez duela inolako diru ordainsaririk jasotzen proiektua kudeatzeagatik, gaur egun arte behintzat. Honek ez du esan nahi proiektua jasangarria ez denik, ondo funtzionatzen ari bait da eta helburuak betetzen dihoalako. Artistek ordea, antolatzen diren ekimenetan ordainsariak jasotzen dituzte gehienetan (*KA*-ren printziopioetako bat delarik).

*KA*-ren ezaugarriak nagusiak zehaztea oso garrantzitsuak da. Nolabait esateko, orain arte proiektuaren bidegarritasuna bermatzeko, oso garrantzitsuak izan dira proiektu honen ezaugarriak, oso berezi eta ezohikoak izanik. Zergatik? Nahiko modu berezian kudeatzen delako plataforma hau.

Ezagutu dugu proiektua nola jaio den, zergatik, zertarako, zeinengatik bultzatua, eta abar. Baina orain, barne kudeaketaren ezaugarriak ikusiko ditugu, eta nire ustez, puntu hau da proiektuari bideragarritasuna ematen diona.

Argi utzi behar dugu, nahiz eta proiektu kolektibo, partehartzaile eta irekia den, plataforma *Xpressionk*-rengatik sustatua, kudeatua eta koordintatua dagoela. Bateragarriak dira ezaugarri guzti hauek, hau da, *Xpressionk*-ek kolektiboak esaten duenaren arabera kudeatuko du plataforma.

● **Izaera administratiboa:** *KA*-k, berez, Kultur Elkartea, fundazioa, enpresa, edo edozein motako egitura eduki ahal izango lukeen, baina gaur egun behintzat, ez dauka egitura administratiborik, ezta beharrik ere. Hau *KA*-en ezaugarri nagusienetako bat d. Administatiboki, *Xpressionk*-ren aterkia dauka, eta ez dauka formalki garatzeko beharrik. Administratiboki beraz, *Xpressionk*-ren proiektu bat da, baina errealitatean, proiektu libre, autonomoa eta kolektiboa da.

***Egitura administratiboa EZ izatearen arrazoiak:***

- KA *oso proiektu dinamiko eta irekia d*a, kide berriak modu iraunkorrean eta etengabe gehitzen direlarik. Beraz, lan asko suposatuko luke administratiboki kide guztien kudeaketa hori aurrera eramatea.

- *Plataforma horizontala*. Entitate juridiko batek, nahiz eta sinbolikoki izan, normalean zuzendari batzorde bat eta lehendakari/zuzendari bat izatea eskatzen du. Zein izango zen lehendakaria? Zergatik? Zenbat denborarako?

- Kostuak. *Entitate juridiko baten kudeaketa administratiboa eramateak kostu bat dakar*. Kudeaketa egoki bat eramateko, egokia eta gomendagarria izaten da aholkularitza bat kontratatzea. Kasu honetan, *Xpressionk*-ek ez du ezer kobratzen kudeaketarengatik.

- Kultur mugimendua (ez entitatea). Proiektu honen izaera oso berezia da, *ez da entitate edo elkarte kultural bat, mugimendu bat baizik*. Beraz, juridikoki hori horrela ere mantentzea ezinbestekoa da. Oso ondo ikusten da hau Topaketak egiterakoan, beti espazio ezberdinetan egiten ditugularik.

- *Berrikuntza*. Proiektu honek berrikuntza ezaugarri asko dauzka, horietako bat ere bai bere administratiboaren egitura da. Normalean elkarte bat edo edozein entitate sortzen ohituak gaude, baina hau zama handia izan daiteke, kasuaren arabera.

- Entitatea egitekotan, *nork edo nortzuk eramango lukete kudeaketa? Prest egongo lirateke doan lan egiteko?* Zenbat denbrarako?

- *Aktiboak/Pasiboak*. *KA*-ren ezaugarri oso esanguratsua da hau. Jende aktiboa zein pasiboa asko aportatzen du plataformara, eta denek garrantzi eta partaidetza maila berdina dute (horizontaltasuna).

- Gune Irekia. Jendeak *nahi duenean joan eta etorri daiteke* plataformara, nahi duen bezala kolaboratu, nahi duena egin,… Hau nola errefeflexatu daiteke estatutu batzuetan?

- *Auzolana*. *Xpressionk*-ek kudeaketa eramate du, besteek? Hau da, *Xpressionk*-ek kudeaketa eramaten du ezerren truke. Honek beste batzuek ere beren laguntza eskaintzeko balio dezake (adibidea jarraitu dezakete).

*Irudia: KA Topaketa#5 (Doka Antzokia, Donostia)*



*Iturria: www.kulturaalternatiboa.com*

- Lidergoa nola eraman? Eredua izaten. Kasu honetan, *Xpressionk* eredua izaten aten ari da doan lan egiten. Hau besteentzako eredu izan liteke.

- *Xpressionk*-ek proposatu zuen proiektua, eta kudeaketa modeloa. 13 urte ondoren oinarrizko kulturan lan egin ondoren, *Xpressionk*-ek horrelako proiektua bururatu zitzaion, eta hasiera hasieratik plataforma kudeatzeko horrelaxe proposatu zuen, arrazoi askorengatik.

- *Proiektua ondo funtzionatzen ari da*. Urte ta erdiko garapenaren ondoren, ez dago hau baino arrazoi indartsuagorik

- *Proiektuaren jarraipenaren bermea*. Inolako sustengur gasturik ez izatea, hau da,” idei” bat izatea, jarraipenaren bermea ematen dio proiektuari. Demagun krisi batean sartzen dela proiektua: horixe prozesuaren fase bat besterik ez litzateke izango, ez  legokeelako ezer sostengatzeko beharrik.

- *Kudeaketa bateratua*. *Xpressionk*-ek ez du soilik kudeaketa administratiboa eramaten, koordinazio generala ere eramaten du. Adibidez: topaketak antolatu, lantaldeak koordinatu, harreman instituzionala, eta abar.

Beraz, *KA*-ren ezaugarri nagusienetako bat bere izaera administatiboa da. Baina goazen ezaugarrarri gehiago ikustea:

● **Antolaketa**

Proiektu hau motibazioaren bitartez funtzionatzen du. Hori da ardatz nagusia funtzionamenduan egoteko. Horrek esan nahi du ez duela estruktura finkorik. Oso plataforma dinamikoa da, eta horregatik ez dago postu edo lantalde finkorik. Hala ere, badago estruktura orokor bat.

Koordinazioa eta lan administratibo nagusia, *Xpressionk* elkarteak eramaten du. Beraz, *bulego lana* elkarte honek kudeatzen du. Topaketetan erabakitzen dira egin behar guztiak.

Baita ere, lantalde dinamikoak daude, koordinazio lantalde batetik gidatuak. Lantalde bakoitzeko arduradun bana koordinazio taldean egongo direlarik. Beraz, koordinazio talde bat dago, eta ondoren lantalde ezberdinak (komunikazioa, plastika, diseinua, etab.).

● **Arte adarrak**

Platafromaren ezaugarri nagusienetako bat da hau. Plataforma honek ez dauka mugarik arte diziplinei dagokionez. Beraz, musika, antzerkia, dantza, arte plastikoak, eta abar sartzen dira *KA*-ren baitan. Uste dugu, nahiz eta normalean artista oso anitzak egon plataformaren baitan, behar orokorrak oso antzekoak direla guztietan (elkartrukeak, foro batean parte hartzea, errekurtso falta,…). Horregatik, behar zehatzagoak asetzeko lantaldeak daude, adibidez arte plastikoen behar ezberdinak asetzeko, arte plastikoen artisten artean hobeto konponduko dira.

● **Parte-hartzea**

*“Pertsona guztiek dute komunitatearen kultur bizitzan libreki parte hartzeko, arteaz gozatzeko, eta hemendik suertatzen diren aurrerapen zientifiko eta etekinetan onuradun izateko eskubidea.”* **Nazio Batuen Erakundea (**1948).

Parte-hartze guztiz irekia duen mugimendu baten aurrean gaude. Askotan entzuten dugu partehartze kontzeptua, baina noraino da erreala? Publikoa izatea parte hartzea da? Bozkatzea parte hartzea da?

*KA*-ren parte-hartzea, errealtzat hartzen dugu. Zergatik? Guztiok dugulako proiektuan parte hartzeko aukera edozein arloetan. Hau da, zein da gehien motibatzen zaizuna? Ba bertan parte hartu. Gainera, horizontaltasuna oso serio hartzen dugu, eta *KA guztiona da*, nahiz eta partaide bat berria izan plataforman, adibidez. Honek proiektu hau ezberdin eta berezia bilakatzen du, bere izaera soziala bermatuz.

● **Kide motak**

Edozeinek batu daiteke plataformara: talde, elkarte, artista, herritar, politiko, taberna, enpresa, komunitate, plataforma, sindikato, instituzio, eta abar. Zergatik ukatuko zaio ba norbaiti parte hartzea? Bertara etorri nahi badu, zerbait aportatzeko izango du, ziur.

● **Doanekoa**

Doanekoa izan behar du plataforma hau**.** Esan dugun bezala, fluxu oso aktiboa du *KA*, hau da, aterik ez leudeke bezala funtzionatzen du, eta kuotak ipintzea adibidez ez luke inolako zentzurik izango. Hau, mendira edo itsasora joateko sarrerak saltzea bezala izango litzateke.

● **Guztiz irekia**

Beraz, irekiera erabatekoa da. Honek esan nahi du edozeinek joan daitekeela Topaketa batera eta bere iritziak ematea adibidez. Baita ere, plataformaren egoera ekonomikoa ezagutu ahalko du**,** eta noski, aldaketak, proiektuak, edo dena delakoa proposatu.

● **Egoitzarik ez**

Zertarako beharko genuke egoitza bat? Normala eta logikoa da jendeak modu klasikoan eta ezagutzen duenaren arabera pentsatzea , formatu solidoak, **Zymung Bauman-**ek (1999 ) deitzen dituen bezala. . “Elkarte bat zarete?” ,“Zein da presidente edo zuzendaria?”, ” Non daukazue egoitza? “, horrelako galderak ohikoak izaten dira, plataformari buruz galdetzen dutenean artean.

Baina bai forman eta bai edukinean proiektu eraldatzailea de KA, eta modu ezberdinean pentsatu eta ibiltzen gara.

Ez dugu egoitzarik batez ere ez dugulako behar, edozein eginkizunetarako, KA-k beren kideen euskarria erabiltzen du. Bai administratiboki, produkzioan, etab. Gainera, gure ikuspegiaren arabera proiektu askoz ere malgua eta dinamikoa da inolako egoitza fisikorik gabe.Hilero egiten ditugun Topaketetan adibidez, beti espazioz aldatzen dugu. Horrela, plataforma inguruari ezagutarazteko aukera ematen du.

*Irudia: KA Topaketa#9 (Zuloaga Plaza, Donostia)*



*Iturria: www.kulturaalternatiboa.com*

● **Instituzioekin zubi-lana**

Esan dugun bezala, plataformako kideek oso behar eta motibazio ezberdinak dituzte. Baina horietako bat, Instituzioengana iristeko modurik ez dutela da.. Bai beraiekin hitzegiteko, beren kezkak azaltzeko, proposamenak modu egokian egiteko, eta abar. *KA* horretarako ere balio du, bozgorailu egoki bat da Insituzioei eta gizarteari begira.

### 4.8. Zer EZ da *KA*?

Ondo etortzen da batzuetan aurreiritziak gainetik kentzea, ez nahasteko buruan dauzkagun idei zaharrekin. Hau azaltzea egokia deritzot, askotan aurkitu garelako proiektuarekiko aurreiritzi eta idei okerrekin.

- Ez da elkartea, ez fundazioa, ez enpresa, ez produktora bat.
- Ez da Instituzio bat, ez pribatua, ez publikoa.
- Ez da instituzio publiko edo pribatu baten proiektua
- Ez da GKE bat (Gobernuz kanpoko erakundea).
- Ez dauka estatuturik, ez lehendakaririk, ez diruzainarik ezta idazkaririk ere.
- Ez da espazio bat, eta ez du egoitzarik.
- Ez dauka kostu finkorik.

- Ez dauka zuzendaririk, ezta partaide kopuru finko eta zehatz bat ere ez.
- Ez dauka helburu bakar bat. Asko dira *KA*-ren helburuak, eta aldakorrak dira gainera.

### 4.9. Kultur elkarte edo bestelako entitate batean bilakatu?

Plataforma jaio zenetik, betidanik egon da gai honi buruzko eztabaida kideen artean. Lan honen hasieran azaldu dugu nola jaio izan den plataforma, zergatik, nola, noiz, etab., eta logikoa da eztabaida hau egotea, beti formatu klasikoan pentsatzeko ohitura bait dugu (jendea orokorrean), eta normalean prozesu edo formatu solidoetan pentsatzeko joera dago (**Zygmunt Bauman, 1999** ).

Laburpen gisa eta gogorarazteko, aztertzen gauden plataforma *Xpressionk* elkartearemgatik kudeatuta eta koordinatuta dago. Honek, partaidetza irekiko eta horizontala den proiektu batean pensatzerakoan sentsazio kontrajarriak piztu ditzake, eta ondo maneiatu beharreko kontua da. Beraz, bidegurutze batean aurkitzen gara: plataformaren jasangarritasuna bermatu funtzionamenduari dagokionez (orain erabiltzen ari garen formula) ala horizontaltasuna eta partaidetza ezarri plataformaren arlo guztietan?

Gai hau plataforman azken hilabeteotan kudeatu da. Modu gardenean eta naturalean tratatu beharreko kontua zen, eta horrelaxe egin zen:

1) **Topaketa berezi bat antolatu zen gai honi buruz hitzegiteko.** *"KA-ren egitura juridiko eta adminisitratiboa. Irabazi asmorik gabeko Kultur Elkarte batean bilakatu? Orain arte bezala segi? Beste aukera bat?"*. Horrela, topaketa horretan bakarrik gai honi buruz hitzegin zen. Gainera, ezin zuenak Topaketara etorri, bere proposamenak bidali ahalko zuen bai emailez edo sare sozialen bitartez, hauek kontutan hartzeko.

Topaketa honetan *KA*-ko kide batek elkartea sortzeko ala ez sortzeko buruzko informazioa azaldu zuen aurkezpen batean, horrela, botatzeko orduan informazio gehiago izan ahalko zuten nahi zuten guztiek.

2) **Bigarren pauso moduan, email bat bidali zen plataformako kide guztiei, 300 kideei.** Bertan, galdera soil bat egiten zen: *KA-ren egitura juridikoari buruz bozkatu nahi duzu?* Erantzuna ezezkoa edo erantzunik gabea bazen, ez genion beste email bat bidaliko. Erantzuna baiezkoa bazen, beste email bat bidaliko genion informazio gehiagorekin.

3) **Hirugarren pausoa, baiezkoa erantzun zutenei zuzendua zegoen**. Email bat bidali zitzaien Topaketa berezi horretan egindako aurkezpenarekin, eta bozkatzeko aukera ematzen zitzaien. Baira ere, erantzuna arrazoitzeko eskatzen zitzaien bozketa ematerako orduan, informazio baliagarria zelakoan.

Beraz, esan bezala 3 aukera zeuden bozketa egiterako orduan:

**A)** Irabazi asmorik gabeko kultur elkarte batean bilakatu
**B)** Berdi segi. Hau da, Xpressionk Elkartearengatik kudeatuta segi.
**C)** Beste aukera bat. Proposamena adieraziz.

Jarraian, Topaketa berezian azaldutako eta bozkatzeko interesa azaldu zutenei bidalitako aurkezpena azaltzen dut. Batez ere aurkezpen didaktiko bat zen, ahalik eta informazio gehiagorekin bozkatu ahal izateko. Normalean, jarraian jartzen ditugun galderei erantzunak emateko, kideengan oso ohikoak direlarik:

*Zergatik aldatu? Zergatik berdin segi? Zer suposatzen du? Ondo gaude horrela? Zer aldatzen da irabazi asmorik gabeko kultur elkarte batean bilakatzen bagara? Materiala erosten bada eta ez baldin bagaude entitate batean osaturik? Biltegia izan behar badugu? Eta zer pasako da finantziazio iturriekin? Ez baldin bagara elkarte bat, nola jasan ahal ditugu dirulaguntzak? Kideei kuotak kobratzea komeni da? Sostengarria al da plataforma horrela jarraitzen badugu? Seriotasun falta izango ahal dugu ez bagara elkarte batean bilakatzen? Eta marka pribatuak, entitate bat ez garela jakiten dutenean zer pentsatuko dute? Estatutrik ez baldin baditugu, non zehaztuko ditugu gure printzipioak eta baoloreak?*

***Topaketa berezian egindako aurkezpena:***

**Testuingurua:**

- *KA*= plataforma irekia, horizontala, egitura juridiko fiskala definitu gabea.
- Fiskalki eta administratiboki *Xpressionk*-engatik kudeatuta
- Irabazi asmorik gabeko elkarte baten abantailetaz gozatu dezake. Dirulaguntzak jaso, zerga gutxiago,…
- No tiene la carga administrativa ni de gestión de un ASNL ni sus estructuras; permite mayor fluidez
- Ez dauka administrazio eta kudeaketa zamarik, ezta elkarte baten estrukturak ere. Malgutasun gehiago ahalbidetzen diolarik.

**Elkarrizketaren jatorria**

- *KA* plataforma gazteada eta autoeraketa prozesuan dago oraintxe
- Entitatearen birdefinizio prozesuaren parte da egitura administratiboa eta juridikoa kuestionatzea.
- Eztabaida hau normala da, eta ospatzeko eta sakontzeko begi onekin ikusi behar dugu.
- Mota honetako elkarte guztiek prozesu honetatik pasatzen dira. Beraz, seinale ona da.

**Irabazi asmorik gabeko kultur elkarte baten eraketa, definizio eta arauak**

- Irabazi asmorik gabeko kultur elkarte batek gizartearentzako xede batizan behar du. Elkarte artistikoak oso arruntak dira
- Eraketa 37 euro balio du, eta kudeatzaile baten gastuak gehitu beharko lirateke (hau egotekotan).
- Eraketarako beharrezkoa da:
    - Inkorporazio akta
    - Estatutu batzuk: xedea, ikuspegia, helburuak
    - Batzorde nagusia + lehendakaria
    - Kontabilitate gardena eta urteko deklarazioa
- Inkorporazioa = 4-6 hilabeteko lan gogorra eta intentsoa dena prestatzen

***KA* elkarte batean bilakatzearen abantailak eta desabantailak**

**Desabantailak**

- Batzorde Nagusiaren aldetik konpromezu handia
- 1500-1600 euro urteko gastuetan kudeatzaile gastuetan
- Pertsona bat lanean elkartearentzako 25/30 ordu gutxienez
- Gutxienez Batzar Nagusi bat urtean behin
- Akta eta kontuen bilketa
- Erabaki garrantzitsuak Ezohiko Batzordearen bitartez (kideen 1/3)

**Abantailak:**

- Izaera fiskal propioa, fakturatzeko, erosteko, laguntzak eskatzeko, kontratuak firmatzeko aukerarekin.
- *Xpressionk*-engatik autonomia osoa
- Gardentasun osoa= kide guztiek elkartearen informazio guztia eskura dute.
- Funtzionatzeko modua estatutu propio batzuetan finkatuta izatea, legalki lotetsiak.

**Nola gaude gaur egun?**

- Finantzaketetan *Xpressionk*-rengatik kudeatuta
- *Xpressionk* elkartearengatik kudeatuta: dirulaguntzak eskatu ditzakegu nahiz eta *KA*-rentzako izan. Hau da, *Xpressionk*-ren bidez laguntzak eskatzen ditugu.
- *KA*-ren banku kontu korronte bat dago, *KA*-ren kontuetarako bakarrik.
- *KA*-ren zerbitzuetara dauden funtzionamendu estrukturak

**Plataforma: sinesgarritasuna bai, mugarik ez.**

- Berez, administratiboki irabazi asmorik gabeko kultur elkarte baten moduan funtzionatzen dugu
- *KA*-ren baitan mota guztietako norbanako + Elkarteak daude
- Ez dugu elkartearen 1/3 behar edozein erabaki aurrera eramateko.

**Gardentasunaren kontua konponduz. Elkarte egin gabe erresoluzioa?**

- Edozein partaidek, *KA*-ren mugimenduak begiratu ditzake.

- *KA*-k banku kontu bat banandu bat dauka
- *KA*-rako erosten den edozein gauza, kontratu bidez *KA*-rena dela izenpetu daiteke.
- Diruzaintza lantalde baten sormena. Funtzioak:
    - Hilabetero barne kontratuak firmatzea.
    - *Xpressionk*-rekin hilabetero kontuak aztertzea
    - Hilabeteko Topaketetan diruzaintza guztiak azaldu.
- Urtero, Ekainean kontua hau aztertzea ( hilabete beharko lirateke elkartea sortzeko)
- Erabaki haztatu eta lotetsiak
- Erosketak barne kontratu bitartez egin

**Beste kontsiderazio batzuk**

- *Xpressionk*, *KA*-ren koordinatzailea definizioz. Honen ausentzian:
    - Kontingentzi plan baten beharra. Horrela izango litzateke:
        - Koordinatzaile baten beharra
        - Lantaldeen koordinatzaileen inplikazio handiaren beharra 3-6 hilabeteetan gutxienez

- Behin behineko ausentzia: kasuaren arabera
- Behin betiko ausentzia: goian zehaztua
- Bat-bateko ausentzia: mugimendu azkarra

- Etorkizunean debatitzeko gaia: kudeaketa, eginkizun ordaindua.

# 5. *CANVAS* EREDUA

Egokia eta ideia ona iruditu zait plataformaren funtzionamendua azaltzeko *Canvas*-en eredua erabiltzea. Logika bera eta baita ere errekurtsoen erabilera oso kontutan hartzen du modelo honek, baita ere proiekturaren indarguneak eta ahuleziak. Beraz, eredu honetan ere oinarritu gara *KA* plataforma aztertzeko.

*Canvas,* erakundeek balioa nola sortu, entregatu eta harrapatzenduten aztertzen duen eredua da. Proiektuaren ereduaren diseinua, negozio estrategiaren parte da, beraz, entitate baten indarguneak eta ahultasunak ezagutzeko ezinbestekoa da errekurtsoen estrukturazioa **Alexander Ostelwader**-ek (2004) dioen bezala.

Atentzioa ere deitu dit, oso erraminta erosoa izan litekeela bulegoan edo lantokian edukitzeko. Jarraian jartzen dugun koadroa, tamaina handian inprimatu, eta betetzen joan daiteke oso modu malguan eta gradualki. Beraz, proiektuaren alor ezberdinak, eta ondorioz, plataforma bere osotasunean bisualizatzeko oso interesgarria dela usted ut,

Canvas eredua erabiltzerakoan, 2 eredu mota garatu behar izan dugu. Bat barne ikuspegiarekin eta bestea kanpo ikuspegiarekin. Zergatik?

**Barne ikuspegia:** kasu honetan, plataformaren barnealdera begira jartzen gara. Bertan parte hartzeko kideak nola lortu, lantaldeak, proiektuak, etab. nola kudeatzeaz arituko gara.

**Kanpo ikuspegia:** ikuspegi honetan ordea, *KA*-k kanpoaldera begira daukan jarrera kontutan hartzen da. Ekimenen publikoak, ekimen artistikoak, kanpo kolaborazioak, etab

## KA-ren Canvas Eredua (Barne ikuspegia)

**Aliantzak**

Adar berdineko artistak

KA-ko eragileak

KA-ren beharren arabera

Aliantza sektorialak

Proiektuak garatzeko

**Ekimen klabeak**

KA Topaketak

LAn taldeen bilerak

KA Zuzenean ekimenak

**Errekurtso klabeak**

KA-ren partaideak

Motibazioa

**Balio proposamenak**

KA tresna proiektuak egiteko

Hausnarketa kolektiboa

Aldarrikatzeko erraminta

Proiektu berriak

**Bezeroarekin harremana**

Errespetua

Enpatia

Forma onak komunikazioan

**Kanalak**

Sare sozialak

Topaketak

Lantaldeen bilerak

**Bezeroen segmentazioa**

Adina

Arte adarra

Lan profesionala

Motibazio mota

Beharrak

Esperientzia

**Kostuen estruktura**

Materiala: Diska gogorrak, roll up-ak, banderolak, besteako materialak.

Oraingoz ez daude kostu gehiago barne ikuspegiaren aldetik.

**Sarrerak**

Orain arteko sarrera guztiak proiektu kulturalentzako izan dira, beraz, kanpo ikuspegian ikusiko ditugu.

### *5.1. Canvas Eredua (Barne ikuspegia):*

▪ **Aliantzak.** Hau plataforma honen oinarrizko zutabea da, *KA*, berez, aliantza handi bat da, plataformaren baitan aliantzak lortzea heburuetako bat delarik. Adibidez: diziplina berdineko artisten artean, diziplina ezberdineko artisten artean,… Lehenago ere komentatu dugun bezala, *KA*-k ondo funtzionatzen badu aliantza asko egongo dira, eta horrek sare handi eta sendo bat osatzen bukatuko du.

▪ **Ekimen klabeak.** Dudarik gabe, hilean behin egiten ditugun *KA* Topaketak dira barne ikuspegitik ekimen klabeenak. Bertan plataformaren norabidea, erabaki nagusiak, kide berriei harrerak, eta abar lantzen direlarik. Gehiago esango nuke, Topaketek plataformari izaera kolektiboa ematen dio nire ustez, Topaketarik gabe plataformaren zentzua guztiz aldatu eta beste bide bat hartuko luke, gaur egun daukan ikuspegi ireki, eraldatzaile eta inklusiboa erabat aldatuko zen.

▪ **Errekurtso klabeak.** Errekurtsorik klabeenak kideak dira. Proiektu honek ez dauka estruktura finkorik, bere kideetan sostengatzen delarik. Auzolanaren bitartez, kide ezberdinek kontu ezberdinak lantzen dituzte: produkzioa, komunikazioa, administrazioa, eta abar. Beraz errekurtso klabeak *KA*-ren baitan daude kideak dira, bai eragile, artista edo norbanako izan.

▪ **Balio proposamenak.** Hemen kideentzako proposamenak anitzak izan daitezke. Adibidez, *KA* tresna moduan erabiltzea hauetako bat da. Imaginatu plataformako eragile batek, bere kabuz proiektu bat aurrera eramateko hainbat Instituzio eta eragileekin elkartzeko beharra dagoela. Kasu honetan, KA-k bere webgunean dossier bat eta txartelak ipini ditu KA-ren kide bakoitzak bere modura eta nahi duenean erbailtzeko. KA-k aportatzen duen balioa beraz zera da: “do it yourself” modura, baina plataforma baten laguntza eta sostenguarekin.

▪ **Bezeroekin harremanak:** Kasu honetan, barne ikuspegitik ari garenez bezeroak kideak dira. Hau kontu interesgarri eta zaila da aldi berean, oso zaila delako kide guztiekin harremana izatea erregularki eta modu jarraian. Zergatik? Hasteko, kide asko gaudelako *KA*-n, eta zaila delako guztion artean harreman estu bat egotea. Bestetik, eta hau seinale ona da, oso anitzak direlako partaide guztiak: motibazio, ikuspegi, behar eta ezaugarri oso anitzak daude plataformaren baitan, eta horrek harremanak zaildu egiten ditu.

*Irudia: Webgunean deskargatzeko dagoen KA txartela*




*Iturria: www.kulturaalternatiboa.com*

▪ **Kanalak.** Sare sozialak dira *KA*-ren kanalik esanguratsuenetarikoak dira, bertan egiten dugun guztia azaltzen delako, eta plataforma zertan datzan ondo azaltzen duelako. Bestetik, ahoz-ahoko kanala ere bai oso garrantzitsua da, eta agian efektiboena esango nuke. Hemen arlo emozionala sartzen da jokuan, eta *KA* Topeketetan eta lantaldeetako bileretan harreman pertsonal asko gauzatzen dira.

▪ **Bezero segmentuak.** Azken aurreko puntuan esandakoarekin jarraituz, aniztasuna da nagusi *KA*-n eta hori oso positiboa da plataformarentzako. Horrek eramaten gaitu segmentu asko izatea partaideen artean. Beraz, oso segmentazio konplexuaren aurrean gaude. Azken finean, esan genezake *KA* gizartearen lagin txiki bat bezalakoxea dela, nahiz eta gai baten inguran elkartu (kultura alternatiboa eta oinarrizko kultura).

▪ **Kostuen estruktura.** Barnealdeari begira, plataforma honen estrukturaren kostuetan zentratuko gara. Kanpoaldeari begira ordea, emanaldien eta bestelakoen kostuetan zentratuko gara. Beno, plataformaren kostua oso berezia da: ez dauka kosturik. Egia da baita ere nahiko erraza dela zergaitia azaltzen: *KA*-ren oinarria, egun, aktibismoa da eta bere kideengan sostengatzen da, beraz, ez du kosturik bere estrukturan. Egia da, kostu estrukturalak ez diren kostu batzuk badaudela. Adibidez: diska gogorrak, banderolak, erakusketak egiteko soporteak, eta laster agian, biltegi baten beharra izango dugu guzti hori gorde ahal izateko.

▪ **Sarrera iturriak.** Orain arte jaso ditugun sarrera guztiak publikoak izan dira. Baina ez dira barne funtzionamendurako izan, ekimen gehiago egiteko baizik. *KA*-ren ideia estruktura aldetik autogestioa bultzatzea da, eta bestetik, ekimen eta proiektu ezberdinak garatzeko laguntza publiko edo pribatuak jasotzeko prest gaude.

## KA-ren Canvas Eredua (Kanpo ikuspegia)

**Aliantzak**

Beste eragileak

Instituzio publikoak

Enpresa pribatuak

Hezkuntza zentroak

Jaialdiak / Bestelako proiektuak

**Ekimen klabeak**

Ekimen artistiko/kulturalak:
*Stop War Festibala*
*100KA*
*KA Zuzenean*
*KA fanzinea (KAzeta28)*
*GazteKA*

**Baliabide klabeak**

Dirulaguntzak

Autokudeaketa (baliabideak lortzeko ahalmena)

Babesleak/kolaborazioak

**Balio proposamenak**

Mahai baten eraketa eragile ezberdinekin

Elkarrizketa iraunkorrak Instituzioekin

Proiektu kolektiboen eraketa

**Bezeroarekin harremana**

Berotasuna

Enpatia

Freskotasuna

**Kanalak**

Arte ekimenak

Kultur proiektuak

Prentsa

Sare sozialak

**Bezeroen segmentazioa**

Artista (Bai/Ez)

Eragilea mota

Arte adarra

Kultura ohiko kontsumitzailea (Bai/Ez)

**Kostuen estruktura**

Ekimen artistiko eta kulturaletako kostuak: produkzioa, artisten ordainsariak, komunikazioa, administrazioa, etab.

**Sarrerak**

Orain arteko sarrera guztiak dirulaguntzen bidez eta autokudeaketaren bitartez izan dira. Gehienak dirulaguntzen bitartez.

### *5.2. Canvas eredua (Kanpo ikuspegia):*

**Aliantzak.** Plataforma ireki bezala, kolaborazioak eta aliantzak bai barruan eta bai kanpoan izateko ahalmena du *KA*-k. Barne kolaborazioak, lehen ikusi bezala, *KA*-ren izaeran bertan dago, baino kanpo kolaborazioak ere bai. Proiektu ezberdinak garatzeko eragile ezberdineekin kolaboratu behar izaten du plataformak. Adibidez, *Stop War Festibala*, *Donostia 2016*-ren baitan, hiru eragileek kolaboratu zuten aurrera eramateko*: Ginmusica*, *Demagun* eta *KA*. Kasu honetan adibidez kanpo eragile batzuekin kolaboratu zen. Beste adibide bat, Instituzioekin izan dezakegun edozein harreman edo proiektu.

**Ekimen klabeak**. *KA*-ren kanpo ikuspegitik ekimen klabeak aurrera eramaten ditugun proiektuak dira. *Stop War Festibala, 100KA, fanzinea, KA Zuzenean ekimenak,…* hauek aurrerago zehatzago azalduko ditugu. Azken finean, mugimendu bezala, elkartasuna eta kolaborazioak bilatzen ditugu bakoitzaren proiektuak sendotzeko, baina proiektu berriak ere plataforma garatzeko eta ezagutzera emateko. Normalean *KA*-ko ekimen artistikoak beste gauza batzuen artean plataforma ezagutarazteko izaten dira, beraz, ekimen klabe hauen atzean *KA* handitzea eta sendotzean datza helburu nagusia.

**Errekurtso klabeak.** Barne ikuspegitik oso garbi utzi dugu baliabide klabeak partaideak direla, baina kanpo ikuspegian gaudenez, berriro proiektuetara goaz. Oraingoz, *KA*-ren estruktura kideengan sostengatzen da arazorik gabe, baina proiektuak aurrera eramateko errekurtsoen beharra dauka. Beraz, edozein proiektu aurrera eramateko material teknikoa, produkzioa, finantzioazio, promozioa, eta abarren beharra dauka. Beraz, kanpo ikuspegitik autokudeaketa (baliabideak lortzeko ahalmena), dirulaguntzak eta babesleak errekurtso klabeetan bihurtzen dira, *KA*-ren kanpo garapenerako ezinbestekoak bait dira.

**Balio proposamenak.** Kanpo ikuspegitik oso ideia interesgarria iruditzen zait mahai bat sortzea Gipuzkoak eragile, herritar, artista eta instituzioekin elkarrizketa iraunkor bat izan ahal izateko guztion artean. Honek ikuspegi ezberdinak ezagutzeko oso interesgarri liteke.

**Bezeroekin harremanak:** Kasu honetan, gure bezeroa gizarte osoa litzateke. Azken finean gizarte osoan dagoen kultura alternatiboa eta oinarrizko kultura sustatu nahi dugu, eta horren bezeroa gizarte osoa bezala ikusidezakegu. Agian bezero hurbilago bezala, gure ekimenetara etortzen den publikoa izan daiteke. Hauekin harremana konplizidadean eta berotasunean oinarritu behar dela uste dugu, gure mezua oso garbia eta berezia bait da: “zatoz gurekin oinarrizko kultura eta kultura alternatiboa sustatzea”.

**Kanalak.** Esan bezala, publikora eta gizartera iristeko kanalik zuzenena ekimen artistikoak dira dudarik gabe. Hauetan zer garen eta zer nahi dugun ikusten dudarik gabe. Kasu honetan, *100KA* proiektua jarriko dugu adibide bezala: proiektu bat aurkeztu genuen Energia-Olatuen proiektuan (*Donostia 2016 Fundazioa*). Proiektuak 20.160 euroko dirulaguntza jaso zuen hau aurrera eramateko.

Honetan 2016 urtean 100 ekimen antolatuko genituen *KA* plataforma ezagutarazteko, eta horrela, 2017 urtean eragile eta artista gehiagorekin aurkituko ginateke *KA*-n. Beraz, *KA* jendeari *KA* zer den ezagutarazteko, eta nahi izatekotan, plataformara batzeko aukera ezin hobea da.

**Bezero segmentuak.** Segmentu ezberdinak aurkitzen ditugu *KA*-ren bezeroen artean. Normalean kultura edo artearen kontsumitzaileak, hau kontsumitzen ez dutenek, eragilek, artistak, gazteak, helduak, etab. Dena den, egokia da segmenatazioa bat garatzea: artistak (Ez/Bai), eragile motak, kultura ohiko kontsumitzaileak (Bai/Ez), arte adarra, eta abar.

**Kostuen estruktura.** Oso garbi dago kanpo ikuspegitik, kostuak nola estrukturatuak dauden: guztiak ekimenak antolatzeko kostuak dira, edo ekimenak antolatzeko materialetan inbertitzeko. Beraz, proiektuaren arabera estruktura hau asko aldatzen da. Ez da berdina *100KA* proiektuaren ekimen baten kostua, edo *Stop War Festibala* bezalako Jaialdi baten kostuak estrukturatzea.

**Sarrera iturriak.** Kultur proiektuen diru sarrerak, oraingoz publikoak izan dira. Plataformaren ideia, pixkanaka autokudeaketan ere ibiltzea, baina dirulaguntzak inolako baldintzarik ez badigute jartzen, baita ere autokudeaketa modu bat bezala ikusten dugu, finantziazio publikoak guztionak ere badirelako.

# 6. PROIEKTU EREDU KLASIKOA

| |
|---|
| **PLATAFORMAREN PROIEKTU EREDU KLASIKOA** |
| **KA \| Kultura Alternatiboa** |
| **Egilea: Jokin Telleria** |

**<u>Deskribapen txosten laburra</u>**

| | |
|---|---|
| **Aktibitatearen aurkezpen laburra:**<br>Kultura alternatiboa eta oinarrizko kultura sustatzeko plataforma. Elkartasun, partaidetza eta ikusarazpenaren bidez lantzen den proiektua da KA. | |
| **Epígrafea I.A.E.:** Empresas de espectáculos (965.4) | |
| **Entitatatearen helbidea:**<br>Kalea: Goikale, 12 Behea B<br>Lurraldea: Gipuzkoa<br>Herria: Lasarte-Oria | |
| **Hasiera data:** 2014/09/27 | |
| **Entitate mota:** Irabazi Asmorik gabeko Kultur Elkartea | |
| **Bazkide kopurua:** 300 | **Langile aurreikuspena:** 15 |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena** | KA \| Kultura Alternatiboa |
| **Aktibitate sektorea** | Kultura / Mugimendu sozialak |
| **Herria** | Donostialdea / Euskal Herria |
| **Sustatzaile kopurua** | 300 |
| **Izaera juridiikoa** | Irabazi asmorik gabeko Kultur Elkartea |

**A) Produktu edo zerbitzuaren deskribapen laburra (Zer da, zertarako, zeinentzako, publiko objektiboa, non-lokalizazioa, noiz…)**

*KA*, elkartasuna, partaidetza eta ikusarazpenaren bitartez, kultura alternatiboa eta oinarrizko kultura sustatzeko helburua duen plataforma da. Horretarako, hausnarketa, elkarrizketa eta akziorako espazio bat sortu da, aldi berean: irekia, horizontala, dinamikoa, iraunkorra, librea, kritikoa eta antolatua dena.

Urtebete eta erdiko garapenaren ondoren, 300 artista, agente eta norbanakoengatik osaturik dago. *KA*, eta martxan dauden  proiektu guztiak, helburu berdinak dauzkate. KA-ren beste helburuen artean hurrengoak aurkitu ditzazkegu:

- Gabeziak aurkitu eta konpontzea.
- Errekurtsoen lorpena.
- Elkartruke foro bizi eta konstantea.
- Proposamenak, ekimenak, eta bestelako akzio ezberdinak modu bateratuan sortzea.
- Pentsamendu kritikoa modu kolektiboan garatzea.
- Eta abar.

**B) Produktu edo zerbitzuak asetzen dituen beharrak**

Oinarrizko kultura eta kultura alternatibo sendo bat garatu nahi du plataformak. Ezin da kultur industria sendo bat izan “lurzoru” sendo bat izan gabe. Hau da: ohiturak, espazio egokiak, esperientzadun artistak, jankinmina eta kriterioa duen publikoa, etab. ezinbestekoak dira kultur industria sendo bat izateko. Beraz, *KA*-k asetzen dituen beharrak hauek dira:

- Artisten adierazteko espazio falta
- Errekurtso gabezia (teknikoak, ekonomikoak, eszenikoak, promoziozkoak,..)
- Bakoitzak bere aldetik joateko ohitura ikusirik, elkartasun gune bat sortzea
- Pentsamendu kritikoa bultzatzea
- Proiektu berriak kolektiboki garatzea
- Ikusezin egoera aldatzea (artista eta eragileen Ikusarazpena landuz)
- Kultura soziala garatzea (“behetik gora” doan kultura bultzatzea).
- Herritarren, eragileen eta artisten partaidetza sustatu

**C) Proiektuaren berezitasunaren definizioa**

*KA* ez da kultur elkarte bat, ez enpresa bat, ezta fundazio bat ere. *KA* mugimendu bat da, eta bere kideengan sostengatzen da plataforma aurrera eramateko. Kasu honetan, *Xpressionk* irabazi asmorik gabeko elkarteak plataformaren administrazioa eta koordinazioa eramaten du. Baina honek kolektiboak esaten duenaren arabera funtzionatzen du, hau da, sekretaritzaren lana egiten du *Xpressionk.*

Beraz, mugimendu baten aurrean gaude. Oso proiektu “likidoa” da *KA*, eta oso dinamikoa da bai edukinean eta bai forman. Lan honen beste atal batzuetan komentatu dugu helburu oso anitzak dituela proiektu honek, baina beti helburu berriak gehitu daitezke plataformara, hau da, kidr berrien arabera.

Denbora guztian eraldatzen doan plataforma bat da hau, eta bere horizontaltasunari jarraiki, kideek erabakitzen dute egin beharreko guztia. Hori bai, beti ere arrazonamendu batekin proposatu behar dira proposamenak eta aldaketak.

Proiektu honen bereizgarritasunetako bat oso ikuspegi soziala daukala da. Hau da, edozein elkarteek, bertara inskribatuta dauden artisteei emango die sostengua, baina *KA*-n, zerbait ezberdina gertatzen da. Mugimendu irekia eta inklusiboa izanik, *KA* beti kide berriak eta mugimendua sozializatzen saiatzen da. Beraz, *KA*, gizartearen eskura ipintzen den proiektua da, gizarteak berak, bere gustora erabiltzeko.

**D) Proiektuaren faktore baldintzatzaileak (Sozioekonomikoak, teknikoak, legedia aldetik,…)**

Ari garen gizartearen arlo *sozioekonomikoa*, normalean izkuturik dagoen arloa da. Hau da, asko eragiten du bere ingurari eta gizarteari, baina askotan, herritar gehienentzako, urruti gelditzen den jarduera da.

Oinarrizko kultura eta kultura alternatiboa ikuspegi *ekonomikokitik* ezkutuko ekonomia batean bizi izan da betidanik. Hau arrazoi ezberdinenagatik gertatzen da: bat-batekotasuna, errekurtso falta, erregulazio falta nabaria, kultur jardueren profesionalizazio maila txikia, espazioen ezaugarriak, etab.

*Ikuspegi legaletik* ere, hutsune asko aurkitzen ditugu. Nahiko esanguratsua da adibidez, kontzertuak eta bestelako ekimenak egiten diren espazioak aztertzen ditugunean. Bertan, espazioen %99-a ez du inolako baimenak ekimen artistikoak egiteko. Legeari begiratzen badiogu, adibidez Donostian, ekimenen gehiengoak ilegalak dira. Egoera hau artistei, aretoei eta eragilei babesgabe egoera iraunkor batera eramaten diete.

Badaude espazio batzuk ezaugarri legalak betetzen dituztenak, baina oso gutxi dira. Kafe Antzoki baimena dutenek dira legalki osatuak daudenak, baina obra oso garestia egin behar da, eta ez bakarrik hori, espazio asko eta gune egokian egon behar du aretoa. Normalean ez bada ezer pasatzen (istripurik, edo antzeko zerbait), ez dira inspekzioak egoten, baina arazo oso orokorra dago kultur ekimenetan oinarrizko kulturan: bizilagunak.

Beraz, bizilagunetaz ari garenean, azken finean komunitateari buruz ari gara hitzegiten. Komunitatea, edo ingurua, kultur ekimenak gauzatzerakoan ondoan dauden herritarrak dira, eta beraiek elkarbizitza ezinbestekoa da.

Bizilagunak molestatzen ditugunean, esan dugun moduan, arazoak datos, eta zein ateratzen dira galtzaile? Ba eragileak, artistak eta aretoak, ez daudelako legediaren barnean.

Arazo hauei, errekurtso falta nabariaren arazoa gehituko genioke. Adibidez areto batek ekimen bat antolatzerakoan, gehienetan ez dauka inguruko artisten ezagutzarik, errekurtso tekniko falta nabaria dauzka, ekimenen komunikazioa lantzeko baliabide eskasak ditu, etab.

*Laburpen* moduan beraz, *KA*-ren ingurunea baldintzatzen dituzten faktoreak ez dira egokienak (legediaz kanpo, ezkutuko ekonomia, errekurtso falta, etab.). Horregatik suertatzen da *KA*, elkartasunaren bitartez arazo guzti hauei aurre egiteko tresna oso interesgarria izan daitekeelako.

## E) AMIA Analisia (Ahuleziak, maehatxuak, indarrak, aukerak)

*Taula: AMIA Analisia*

| | BARNEKOAK | KANPOKOAK |
|---|---|---|
| **KONTRAKOAK** | **Ahuleziak** | **Mehatxuak** |
| | Oso plataforma gaztea<br><br>Kideek KA guztiz ondo ez ulertzea<br><br>Aktiboki parte hartzeko jende falta<br><br>Errekurtso eskasak | Zeharkako konpetentzia<br><br>Aurreiritziak, beldurrak , eta abar.<br><br>Ingurunea *KA* mehatxu bezala ikustea<br><br>*KA* zer den ez ulertzea |
| **ALDEKOAK** | **Indarrak** | **Aukerak** |
| | Onura asko ezerren truke<br><br>Oso beharrezko helburuak lantzea<br><br>Kolektiboa, irekia eta horizontala izatea<br><br>Alor asko lantzen ditu (soziala, generoa, partaidetza,..) | Zuzeneko konpetentzarik ez<br><br>Geroz eta kontzientzia  gehiago kulturaren egoerarekin<br><br>Kulturaren gehiengoa oinarrizko kulturan dago<br><br>Krisi ekonomikoa |

*Iturria: KA*

**F) Proiektuaren gaur egungo egoera.**

Nahiz eta bere sorreraren lehen txinparta 2012 urteko Otsailean izan, proiektu hau 2014eko Urrian hasi zen modu iraunkorrean lan egiten. Beraz, urte eta 9 hilabeteko ibilbidea du proiektua. Prozesu iraunkor bat izanik, kideen kopurua igotzen joan da pixkanaka, eta plataformak hainbat funtzio betetzeko ahalmena erakutsi du: Topaketak hilero, arte adar anitzeko ekimenak antolau ditu, *Stop War Festibala*ren eguneko egitaraua antolatua du, bere kideen ikusarazpen lana egiten du, gazteekin proiektuak garatzen ditu,…

Beraz, *KA* kontsolidazio egoera batean aurkitzen da gaur egun. Nahiz eta 300 partaide izan *KA*-ren baitan, oso egoera goiztiar batean aurkitzen da plataforma. Hain irekia eta eraldatzailea da, inguruko mugimenduei nolabaiteko errespestua edo ezinegon bat sortaratzen diela. Alde batetik logika guztia dauka, nahiko funtzionamendu ezberdina bait dauka inguruko elkarte eta eragileei begiratzen badiogu.

Oraintxe, 13-14 lantalde, 5-6 proiektu, beste hainbat proiektu martxan jartzen, eta garrantzitsuena, pixkanaka sarea aldatzen doa. Zenbat eta sare handiagoa, zenbat eta aukera gehiago gauzak aldatzeko.

Dudarik gabe, erronkarik handiena gaur egun, plataformaren parte diren eta ez direnen *KA*-rekiko “kontzientzia” da. Honekin esan nahi det, *KA*-k elkartasunaren bitartez lortu duen bolumena ikusirik, izugarrizko indarra da izango luke bere baitan duen masa soziala pixka bat mobilizatuz gero. Hau da, nahiz eta ekimenak eta proiektuak egiten egon, plataformaren indarra oraindik lokartze egoera batean dago, eta pixkanaka esnatzea izango litzateke erronka nagusia.

**G) Merkatu eta konpetentziaren analisia**

*KA*-ren merkatua oinarrizko kulturan darabilen mugimendu, eragile, instituzio, artista, eta bestelako aktoreek osatzen dute. Merkatu soziala deitu genezake honeri, *KA*-k berez ez duelako inorekin konpetitzen. Egia da, zeharka konpetentzia batzuk egon daitezkeela, baina *KA*-ren filosofiaz aparte dagoen zerbait da. Plataforma inklusiboa eta kolaboratiboa izanik, eta batez ere, bere funtzionatzeko modu berdinik ez dago inguruan. Horregatik konpetentzia ikuspegitik zaila da hitzegitea.

Oinarrizko kulturaren merkatua, nahiko ahula den ingurua da. Eragile txikiez osatuta dago eta instituzio publikoen esku-hartzea egoten da askotan. Beraz, irla txikiez osatutako merkatua da, askotan kolaborazioak suertatzen direlarik, baina ez da ohikoena, nahiz eta normalean giro aparta egon.

Adibidez Donostia bezalako hiri batean kontzertu aretoen arteko konpetentzia nabaria dago. Kontzertuetara joaten den publiko potentziala ez da oso ugaria, beraz, oso kontutan izan behar da konpetentziaren pausoak.

Berdina pasatzen da bestelako eragile, artista eta bestelako aktoreekin.

Arazo nabarmen batzuk suertatu ditu Instituzio publikoen esku-hartzea oinarrizko kulturan. Merkatu honetan hain errekurtso eskasak egonik, Instituzioen esku-hartzeek eragin nabarmena izaten dute, adibidez umorezko bakarrizketa bat diru eta promozioarekin lagunduz.

Baina hau geratzerakoan, eztabaida nahiko polemikoa suertatzen da: zergatik batzuei lagundu eta beste batzuei ez? Zein kriterio erabili dira? Instituzioak antolatzerakoan arauekin arazorik ez, baina hauek esku-hartzen ez dutenean? (adibidez, *Olatu-Talka*), eta galdera gehiago suertatzen dira.

Laburpen gisa, oso merkatu ahul baten aurrean gaude, konpetentzia askokoa eta gainera Instituzioen esku-hartze polemikoekin. Honekin, *KA*-ren helburuak aplikatzea ezinbestekotzat hartzen ditugu inguru honetan dauden gabezi guzti hauei aurre egiteko.

**H) Entitatearen organigrama eta zerbitzuen tipologia**

Beste atal batzuetan azaldu bezala, entitate horizontal baten aurrean gaude. Proiektuaren ezaugarriengatik eta izan duen jaiotza moduarengatik, nahiko funtzionamendu berezia daukan proiektu baten aurrean gaude.

Beti ere horizontaltasuna errespetatuz, *Xpressionk* Elkarteak (*KA*-ko kidea eta aldi berean proiektuaren haserako bultzatzailea) *KA*-ren administrazio eta koordinazio “motorra” dela esan genezake. “Motorra” deitzen diogu, independenteki beti martxan eta modu egonkorrean funtzionatzen dagoelako beti, plataformaren kideek duten parte-hartzearen intentsitatea altua edo baxua den kontutan izan gabe. Honek askatasun gehiago ematen die *KA*-ko eragile eta artistei (partaideei alegia). Horrela, hauek nola, noiz eta zenbat parte hartu dezaketen aukeratu dezakete, inolako behar edo presiorik gabe.

Horrela, organigrama horizontal baten aurrean gaude, koordinazio eta administrazio nukleo bat duena. Nukleo hau funtzio operatiboak dauzka, hau da, ez du erabakitzeko edo bestelako eragiketa gauzatzeko ahalmenik. Nukleo honen inguruan, lantalde ezberdinak aurkitzen ditugu. Batzuk funtzio operatiboak dauzkate eta beste batzuk helburu ezberdinak dituzte. Gaur egun lantalde hauek aurkitzen ditugu *KA*-n: koordinazio lantaldea, komunikazioa, webgunea, diseinu orokorra, ikusentzunezkoak, arte plastikoak, *GazteKA* (Gazteen lantaldea), Jaialdien lantaldea, fanzinearen lantaldea, *100KA*, *KA Zuzenean*, Euskera lantaldea, Instituzio taldea.

Lantalde guzti hauek, *Xpressionk*-ek koordinatu egiten ditu lehen esandako nukleo edo motor funtzio horrekin. Baina plataformaren funtzionamenduan oso garrantzitsuak dira *KA* Topaketen papera. Lehenago ere esan dugu, Topaketek ezinbesteko zutabea dira *KA*-rentzako arrazoi ezberdinengatik:

- Jende berriari harrera
- Datozen pauso nagusiak erabakitzen dira
- Orain arteko ibilbidea kolektiboki aztertzeko
- Hausarketa eta proposamen berriak
- Eztabaidak eta arazoak konpontzeko modu egokia
- Gardentasuna bermatzen da Topaketan hauetan, edozeinek zalantzak argitu ahal izango dituelarik
- Sinbolikoki elkartasuna, inklusibotasuna eta irekiera azaltzen dute (*KA*-ren oinarrizko zutabeak)
- Espazio ezberdinetan izaten dira, *KA* inguruneari erakuteko
- Eta abar.

Zerbitzuen tipologiari dagokionez, ikuspegi ezberdinetatik azaldu daiteke hau, baina *KA*-ren helburua ez da inolako zerbitzurik eskaintzea. *KA*-ren helburuetako bat, kontsumitzaileak asetzea baino, *prosumidoreak* garatzea da. **Alvin Toffler**-en arabera (1980) *prosumidoreak* gizartearen bizitzan aktiboki parte hartzen dutenak dira, eta kasu honetan, kultura kontsumitu baino, sortu egiten dutenak dira.

**I) Eskainitako produktu edo zerbitzuaren deskribapen teknikoa**

Ez nuke jakingo teknikoki nola izendatu proiektu honi. Hainbat helburu, arlo, ondorio eta ezaugarri dituen plataforma hau zaila da teknikoki azaltzea, baina goazen saiatzea nola definituko genukeen guzti hau teknikoki eta ikuspegi ezberdinen bitartez:

**Sozialki.** Partaidetza prozesu bat dela esan genezake. Prozesu osoa partaidetzaren bitartez osatze bait da. Gainera, ez soilik kultura edo arte arloetan zentratzen prozesu hau, edozein herritar, enpresa, eragile, Instituzio,… parte hartu dezake bertan .

**Ekonomikoki.** Hirien dinamizazio sektoriala edota turismo faktore garrantzitsu baten aurrean gaude. Jakin badakigu kultura eta artea bere inguruneari ematen dizkion onura ekonomikoak. Adibidez ostalaritzarako elementu oso indartsua da kalean eta aretoean bertan suertatzen diren ekimen artistikoak. Ez bakarrik hori, turistek segituan jabetzen dira hiri baten kultur bizitzaz.

Aurtengo Aste Santuan bizitako kasua oso esanguratsua da. Normalean Aste Santuan ez dago ia mugimendu artistikorik eta kaleak turistez josiak egoten dira Donostian. Baina aurten *Stop War Festibala* antolatu genuen *KA* plataformatik (beste bi eragileekin batera). *KA*-ren helburua jaialdi honetan sozializazioarena izan zen, eta eguneko egitaraua sendo bat antolatu genuen (60 ekimen artistiko). Honek hiriari bizitza asko eman zion, eta Donostiako eta Donostiatik kanpoko jendea asko harritu zuen honek, Aste Santuan Donostia beti oso aspergarria izaten bait da.

Honek dudarik gabe ondorio oso positiboak ekartzen dizkio hiri baten irudi eta ekonomiari, postalezko hiri bat baino, mugimendu artistikoa duen hiri batera jauzi egitea onurak bakarrik ekartzen ditu.

**Kulturalki.** Esan ohi da, gizakiok lurrean bizitzen hasi ginenerako jada natura hemen zegoela, eta beraz natura ez dela kultura. Kultura gizakiok gure artean bizitzeko eta gure artean komunikatzeko eta sozializatzeko egiten dugun guzti hori da, **Jesús Mosterín**-en ustez (2009). *KA*-k guzti hori garatzen du, beraz, kultur proiektu partehartzaile eta eraldatzale bat bezala definitu dezakegu. Gainera, *KA*-ren enbor nagusia kultura dela esan genezake, kontzeptu horren inguruan jaio eta garatu delako plataforma.

**Artistikoki.** Kultur plataforma batetaz hitzegiten ari gara, baina bere ingurunea artearen bidez eraldatu nahi duena. Baina ez bakarrik hori, adierazpen artistikoak *KA*-ren hizkuntza dela esan genezake. Beraz, mugimendu artistiko batetaz ari gara, artearen bidez adierazi nahi delako.

**Berrikuntza ikuspegitik**. Proiektu honen berrikuntza, ikuspegi ezberdinetatik azpimarratu dezakegu:

- *Antolakuntza ikuspegitik*, plataforma batek koordinazio eta administrazio lana bere kargu hartzea inolako ordainsariren truke ez da oso ohikoa. Gainera, kolektiborako lana egiten du, eta beti modu neutro eta zintzoan jardun behar du.

- Bestetik, *estatuturik eta inolako eskriturarik ez duen entitatea da KA*, eta kultur kudeaketaren prozesu guztiak egiteko ahalmena erakutsi du ikusi dugun moduan: ekimen artistikoak antolatu, topaketak, dirulaguntzak kudeatu, jaialdiak, fanzine bat,… Beraz, inolako forma administatiborik gabe, askatasun osoz, kolektiboki prozesuak eskatzen dituen zeregin ezberdinak aurrera eramaten dira inolako arazorik gabe.

- *Antolakuntza Konstelazio* baten aurrean aurkitzen gara. Hau da, *KA*-ko kideek egiten dituzten ekimena artistiko eta sozial guztiak *KA*-ko konstelaziozkoak dira. Honek berrikuntza oso nabarmena eragiten dio bere inguruneari, ez baita ezer ohikoa horrelako antolaketa, zabalkunde eta kudeaketa kulturala. Normalean, kudeaketa klasikoagoak eramaten dira aurrera Euskal Herriko paronaman.

### J) Marketing-a eta *Social Media* Plana

*KA* plataformaren Marketing onena, ahoz ahozkoa da dudarik gabe. Horrelako mugimenduak horrela ezagutaraztn dira eta oso modu egokiian gainera.

Baina badaude zeinbait tresna KA-rentzako oso garrantzitsuak direnak marketing-a garatzeko: ekimen artistikoak, sare sozialak eta  prentsa.

Baina dudarik gabe, erramintarik eraginkorrena gaur egun horrelako proiektuetan marketing-a garatzeko , 2.0 komunikazioa da. Horregatik, Sozial Media Plan bat garatu dugu:

● ***Sozial Media Plana:***

***Xedea:***
*KA eta bere ezaugarriak ezagutzera eman, partaide eta publiko berria plataforman barneratuz*

***Ikuspegia:***
*Guztion interesak asetzen dituen komunitate bat eratzea, Kultura sozial eta partahartzaile bat garatzeko intentzioarekiN*

***Komunikazio kokapena:***
*Guztion Plataforma ireki bat bezala ikusiak izan nahi dugu, proiektu soziala, guztiona, eta erabat inklusiboa.*

***Barne Analisia***

- ***2.0 Komunikazioa**: KA-ko partaideekin feed-back-a oso garrantzitsua da. Beraz, 2.0 komunikazioa ezinbestekoa da plataforman.*
- ***Baliabideak:** Plataforma hau ekintzailetasun sozialean oinarritzen da denak bolondresak gara.*
- ***Publikoa:** KA-rentzako gizarte osoa publiko objektiboa da plataformaren ezaugarri hain irekiengatik (Open Space)*
- ***Webgunea:** KA-ri buruzko informazio guztia webgunean dago, diseinu nahiko onarekin eta media eduki askorekin (bideoak, argazkiak, etab.)*
- ***Sare Sozialak:** Facebook, Twitter eta Instagram. Interakzio gutxi. Jarraitzen digutenak, batez ere arte mundukoak dira gehienbat.*

***Diagnosia***

- ***Online tresnak:** webgunean, Facebook, Twitter eta Instagram*
- ***Giza baliabide eta baliabide ekonomikoak:** gutxi (aktibismoa)*
- ***Page Rank**: txarra (Webgune berria eta hobetu beharrekoa)*
- ***Balorazioa:** positiboa. Baliabide gutxi izanda, KA-n egiten dugun guztia webgunean eta sare sozialetan agertzea lortzen ari gara.*

***Social Media PLanaren helburuak***

- *KA eta bere filosofia ezagutarazi*
- *Partaide berriak lortzea*
- *Webgunearen ikustaldiak handitzea*
- *KA-ren ekimenak erakustea*
- *KA Topaketen zabalkundea*
- *Ikusarazpen artistikoa*

***Publikoak***

*Gizarte osora zuzentzen gara inolako diskriminaziorik gabe. Proiektu hau Open Space batean jaio zen, eta Open Space-etako printzpioetako bat, edozein pertsona bertara joan daitekeela da.*

*KA Open Space iraunkor bat izaten jarraitzen du, eta herritarrek honetaz jabetzea nahi da plataformatik.*

***Komunikazio ardatzak***

- *Open Space iraunkorra*
- *Plataforma ireki eta inklusiboa*
- *Eraldaketa sozial eta kulturala*

***Estrategia (Kanalak)***

- ***Webgunea**: plataformaren informazio eta ekimen guztiak*
- ***Facebook**: ekimena, plataformaren informazioa,…*
- ***Twitter:** berehalako informazioa*
- ***Instagram:** informazio bisualagoa.*

***Estrategia (Maiztasuna)***

- ***Webgunea:** egunero informazio berria gehitzen da, informazio fluxu oso handia bait dago.*
- ***Facebook:** informazio orokorra, Facebook orrialde ofizialean agertzen da, ekimenen eta informazio artisitkoagoa berriz, Facebookeko "KA Ekimen Aristikoak" profilean.*
- ***Twitter:** ekimen artistikoak daudenean trensa erabiliena.*
- ***Instagram:** oraindik gutxi erabiltzen ari gara, pixkanaka igotzen joango gara erabilera*

*__Estrategia (Osagaiak)__*

*Komentatu dugun moduan, KA-k partaidetza boluntarioan baliatzen da, eta horregatik baliabideak eskasak dira,*

*Baina badago nukleo bat, bulego bat koordinazioa eta administrazioa eramaten duena, komunikazioaz ere enkargatzen delarik.*

**K) Merkatuaren ikerketaren txostena**

Lan honetan komentatu izan dugu oinarrizko kultura eta kultura alternatiboaren merkatu ahula eta atomizatua dela. Bertan eragile ezberdinak ikusi ahal ditugu: aretoak, elkarteak, artistak, norbanako eragileak, enpresa kulturalak, mota ezberdineko instituzioak (Aldundiak, Udaletxea, Eusko Jaurlaritza) eta alor ezberdinetakoak (kultura, gazteria, partaidetza, akzio kulturala, etab.).

Ekonomikoki merkatu ahula da, baina sozialki eta kulturalki indar eta garrantzi handia dauka, ezinbestekoa esango nuke. Industria kulturalaren lehen pausoa da dudarik gabe, eta merkatu hau sendoa izateko, oinarrizko kultura ere indartsua behar da.

Merkatu honetan kultur eragileak ezezik (lehen komentatutakoak), beste sektore batzuekin ere topatzen gara, elkarrekin bizitzen bait dira, eta askotan beraien artean dependentzia handia dagoelarik: ostalaritza, turismoa, aisialdi enpresak, etab.

Beraz, ez da merkatu erraza enpresa proiektu berriak garatzeko, oso inguru ezegonkor eta limitatua delako. Baina *KA*, ikuspegi sozial eta kulturala daukanez, aukerez beteriko ingurunea edo “merkatu soziala” dela esan genezake. Bertan dauden eragile guztiek premia, behar, ezinegon, kexa,… asko eta kolore ezberdinetakoak dituzte, beraz, masa sozial eta artistiko oso anitza dago bertan “landatzeko”.

**L) Konpetentziaren ezaugarriak**

Esan bezala, ez dugu konpetentzia zuzenik identifikatu. *KA* plataforma, Donostia inguruan garatzen ari da gehien bat, eta bere nabarmentzea oso pixkanaka suertatu da. Baina hala ere, bere inguruko eragileei “eskemak apurtzen” ari den modeloa dudarik gabe. Baina zergatik gertatzen da hau?

Goazen identifikatzea kultur eragile berri bat jaiotzen denean, bere inguruko konpetentziari zer suposatzen dion kasu klasiko batean oinarriturik.

- Kultur emanaldiak antolatuko ditu nire inguruan
- Aretoekin harremana landu dezake, neri itzala eginez
- Dirulaguntzetan konpetentzia zuzena (aurrekontu gutxiago banatzeko)
- Programazio konpetitiboago bat garatzea nire inguruan
- Nire publiko fidela galtzeko arriskua
- Sarrera merkeagoak ipintzea
- Artista ezberdinekin tratuak lotzea (esklusiboak kasu batzuetan)

*Aurreko kasu ikusi ondoren, goaze KA-ren kasua ikustera:*

*Zer suposatzen du KA-ren sorrera kultur merkatu batean?  Zer suposatzen die inguruko eragileei?*

- *KA-k eragileen programazioak batu egin nahi ditu, elkartasunaren bitartez guztion indarra handitzeko (errekurtso gehiago, komunikazio hobeagoa, koordinazio landuagoa,…).*
- *Eragile guztien foro bat sustatzen du (ez bakarrik eragileena, artistak, herritarrak, eta nahi duenak ere bai).*
- *Arazo sektorialak (oinarrizko kulturarenak kasu honetan) konpontzeko erraminta bat. Ez da berdina eragile bakarra joatea horrelako zerbait kudeatzeko, edo 300 kideen plataforma baten sostengua izatea.*
- *Erraminta administratiboa edozein eragile/areto/artistarentzat edozein proiektu aurrera eramateko. Askotan, arazo administratiboak ohikoak izaten dira, ezjakintasun edo formazio faltagatik.*
- *KA-k errekurtsoak bilatuko ditu eragile eta espazio guztientzako.*

Beraz, *KA*-k ez dauka konpetentziarik, baina zenbait proiektu edo eragileek zeharkako konpetentzia izan daitezke plataformaren helburuak aurrera eramateko, edo konpetentzia baino gehiago, oztopoak:

***Instituzioak***. Esan dugu lehenago Instituzioek esku-hartzea garatzen dutela oinarrizko kulturan. Baina askotan hauek duten influentzia, boterea eta errekurtsoez baliatzen dira hainbat proiektu kopiatzeko, baztertzeko edo bereganatzeko.

***Zenbait eragile***. Logikoa da beldurra eta aurreiritziak garatzea proiektu berritzaileak suertatzen direnean. Hau gertatzen da bakoitzak daukana ez duelako galdu nahi, eta horregatik emozio ezberdinak azaleratzen dira honen ondorioz.

Logikoa denez, behar gehiena dutenek *KA*-ra elkartu dira, ordea, nahiko egonkor edo denbora gehiago daramatenek, gehiago kostatzen zaie, batez ere, ez dutelako inolako beharrik. Arazoa edo *KA*-rentzako oztopoak agertzen dira, *KA*-ri buruz gaizki hitzegiten edo aurreiritziak beste batzuekin elkarbanatzen direnean. Kultura arloan asko hitzegiten da, eta min asko egin daiteke zurrumurruak zabaltzerakoan. Hauek arrazoi ezberdinengatik agertzen dira: beldurra, aurreiritziak, inbidia, egoak, etab.

Beraz, laburtzeko, *KA*-ren kasuan, konpetentziak baino, zenbait oztopo aurkitzen ditugu. Proiektu berritzaileak garatzeak bere abantailak ditu (ez dago konpetentziarik), baina bere desabantailak ere bai (erresistentzia ezberdinak, lehenago komentatutako arrazoiengatik).

**M) *Xpressionk* egoera balantzea**

Egoera balantzearekin hasteko, *Xpressionk*-ren 2015 urteko egoera balantzea jartzea komenigarria iruditu zait. Bertan, *KA*-koarekin konparatuz, balantze nahiko osatuagoa ikusi dezalegulako. Azpimarratu behar da, egoera balantze hau laburpen bat besterik ez dela. Batez ere *Artisten ordainsarietan (Beste Gastuak)* eta *Bezeroak*-en *(Sarrerak)*, askoz gehiago desglosatu daitekeelako.

*Gastuetan, Artisten ordainsarietan*, *Xpressionk*-ek urte osoan zehar egiten dituen emanaldien artisten ordainketak dira, ikusi daitekeen moduan, aurrekontuaren portzentai oso altua betetzen dute, %87-a hain zuzen. Beraz, garbi gelditzen da *Xpressionk* elkarteak ere bai, artisteengan inbertitxen duela lanik handiena.

Bestalde, *Sarreretan*, *Bezeroak* atalean berdina pasatzen da, bezeroa ugari ditugu urte osoan zehar. Udalak, Elkarteak, produktorak, enpresak, eta abar. Kasu honetan sarreren %94,5-a bezeroetatik ateratzen dira eta % 5,4 berriz dirulaguntzetatik.

*Emaitza* 0 ateratzen da, gogoratu behar dugu Irabazi Asmorik gabeko elkartea dela *Xpressionk*, eta ezin dela inolako etekinik egon. Horrek ez du esan nahi erreserbak edo antzekoak egon ez daitezkeenik.

*Taula: Xpressionk-ren egoera balantzea*

| **EGOERA BALANTZEA \| XPRESSIONK 2015** | |
|---|---|
| **GASTU KONTZEPTUAK** | **Euro** |
| **PERTSONAL GASTUAK** | |
| Soldatak | 20.507,66 |
| Segurantza soziala | 6.186,82 |
| **FUNTZIONAMENDU GASTUAK** | |
| **Ustiapen beste gastuak:** | |
| Zerbitzu profesionalak | 1.796,75 |
| Hornikuntzak | 1.101,60 |
| Autopistak | 120,82 |
| Parking-ak | 383,95 |
| Jatetxeak | 44,8 |
| Telefonoa | 1.320,15 |
| Inprenta | 347,8 |
| **BESTE GASTUAK** | |
| Artisei ordainsariak | 216106,65 |
| Gastos Finantziarioak | 190,99 |
| **Totala** | **248107,99** |
| **SARRERA KONTZEPTUAK** | **Euro** |
| Bezeroak (Udaletxeak, eragile ezberdinak, etab.) | 234.948,79 |
| Eusko Jaurlaritza dirulaguntza | 13.158 |
| Beste sarrera finantziarioak | 1,2 |
| **Totala** | **248107,99** |
| **EKITALDI EMAITZA** | **0** |

*Iturria: Xpressionk*

**N) *KA* egoera balantzea**

Ikusten den bezala, *KA*-ren kasua ezberdina da. Alde batetik, plataforma berria da, eta *Xpressionk*-ek ordea jada 13 urteko ibilbidea dauka. Ez dugu ahaztu behar, *KA*-k berez ez duela ez izaera administratiborik ez juridikorik, baina ikusten den bezala horrek ez dio ezertan mugatzen edo baldintzatzen, banku korronte propioa bait du plataformak.

Ez dago *soldatarik*, lehenago komentatu dugun bezala plataforma bere kideengan sustengatzen bait da, oraingoz, borondate eta aktibismoaren bitartez. *Gastu* gutxi batzuk, ustiapen gastuetara dihoaz, gehienbat, promozioa eta ekimenak aurrera eramateko materialarentzako. Eta aurreko kasuan ikusi dugun bezala, gastuen portzentai handiena ere bai artisten ordainsariak ordaintzera doaz, %93-a kasu honetan.

Plataforma, oso gaztea izanik, oraindik ez du *autokudeaketa sarrerak* garatzeko denborarik izan, hau da, bere kabuz sarrerak lortzeko (merchandising salmenta, txoznak, ekimenen sarrerak, eta abar.). Beraz, diru sarrerak oraingoz Instituzio Publikoetatik etorri dira.

*Taula: KA-ren egoera balantzea*

| **EGOERA BALANTZEA \| KA 2016** | |
|---|---|
| **GASTU KONTZEPTUAK** | **Euro** |
| **PERSTONAL GASTUAK** | |
| Soldatak | 0,00 |
| Segurantza soziala | 0,00 |
| **FUNTZIONAMENDU GASTUAK** | |
| **Ustiapen beste gastuak:** | |
| Inprenta | 205,90 |
| Roll Up KA | 82,28 |
| Roll Up KA (2) | 57,51 |
| Webgunea | 212,49 |
| Produkzio materiala | 243,41 |
| Proiektorea | 697,50 |
| 2 Diska gogor | 180,64 |
| 3 Banderola KA | 266,2 |
| Eraskusketa estruktura | 539,18 |
| **BESTE GASTUAK** | |
| Artisei ordainsariak | 37392 |
| Gastu Finantziarioak | 33 |
| **Totala** | **39.910,11** |
| **SARRERA KONTZEPTUAK** | **Euro** |
| Donostia 2016 (100KA Proiektua) | 20.160,00 |
| Donostia 2016 (Stop War Festibala) | 16.000 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia (Dirulaguntza) | 3750 |
| **Totala** | **39910** |
| **EKITALDI EMAITZA** | **0** |

*Iturria: KA*

## 7. PROIEKTUAREN BEREZITASUN NAGUSIAK

Laburpen moduan beraz, egitura nahiko konplexua duen plataforma baten aurrean gaude, eta bere funtziomendua ere, ondorioz, oso berezia da. Ikusi dugunez, *KA*-ren ingurunea oso ingurune ezegonkor, dinamiko, konplexu eta gabezi askokoa da. Horregatik, kontu askorekin ibili beharreko ingurunea da.

Aurrerago zehaztu dugu plataformaren funtzionamendua, baina jarraian proiektuaren berezitasun batzuk zehaztu nahiko nituzke. Ezaugarri hauek berebiziko garrantzia dute proiektuaren izaera azaltzeko:

● **Araurik ez:** Horrelako mugimendu dinamikoek ez dute arauren beharrik. Kode etiko bat errespetatzearekin nahikoa da mugimendu osoa ondo garatzeko. Horrelako proiektuetan, arauak jartzea, jendeari mugak iruditu zaizkio eta askatasuna falta dagoela antzemango dute. Arauak ipintzeko badaude betidanik egon diren beste eragileak (Instituzioak, enpresak, eta abar.) Hitzegiten denok ados jartzen gara, horretan sinisten dugu eta hau da plataformaren gakoetako bat. Asko pentsatuko dute mugimendu *anarkista* bat bezala funtzionatzen dugula, baina ez da horrela, oinarrizko printzipio (ez arau) batzuk badaude, eta hauek errespetatu behar dira.

● **Malgutasunean dago gakoa.** Jendea sartu, irten, haserretu, talka egin, barre egin, pozez txoratu, triste jarri, bronkak montatu,… denetarik gertatzen da *KA*-n, baina benetazko mugimendu batean gaude, eta denetarik egon behar du, beti ere ondokoei kalterik egin gabe. Honek prozesuari gora-behera asko emango dizkio, baina prozesuek horrelakoak izaten dira, ezegonkorrak. Zenbat eta malgutasun gehiago, zenbat eta plataforma indartsuagoa. *“We Water My Friend”* esaten zuen *Bruce Lee* ospetsuak, ba guztiz ados gaude esald horrekin. Honek inperfekziora eramaten gaitu, baina hori ona da, sanoa, erreala, ez du dugu estetikan eta elitismoan oinarritutako mugimendua garatu nahi.

*Irudia: KA-ren kontzeptu mapa*




*Iturria: http://text2mindmap.com/*

● **Artistek eta eragileek jada nahiko lan daukate beren proiektu propioekin.** Lana, familia, kirola, koadrilla, ikasketak, eta abar. Jendea geroz eta okupatuagoa dago, eta horren kontra ezer gutxi egin daiteke, beraz, ezin zaio inorri ezertara behartu edo exijitu, are gutxiago aktibismoan oinarritzen den proiektu batean. Beraz, denok oso denbora gutxi eta beste prioridade batzuk ditugula argi eta garbi izan behar dugu.

● **Parte-hartzearen kontzeptua modu berezian ikusten da *KA*-n.** *Parte hartze* kontzeptuari ere erreparatu diogu lan honetan. Normalean kontzeptu hau erabilitzen dugu proiektu baten parte-hartzaileek erabakietan, bileretan, komisioetan, eta bestelako funtzioetan aktiboki parte-hartzen dutenean. Baina proiektuetako kideek zer nahi dute? Galdetu egin zaie? Zein da bere pasioa? Bere helburua bizitzan?

Askotan, nahiz eta kolaboratiboak edo sozialak izan, inposaketak egoten dira proiektuetan. Adibidez: *"Proiektuak ez dira bakarrik ibilitzen"*, *"Hau norbaitek egin beharko du"*, *"nik asko egin eta besteak ezer?"* eta horrelako esaldi askok, proiektu askori min oso handia egiten diete, presioa barneratzen dute proiektuetan, eta hori bueltarik gabeko arazoa izan daiteke askotan. Honekin esan nahi dudana da, norbaitek zerbait ez badu egin nahi, hoberena ez egitea, bere momentua iritsiko bait da berak benetan nahi duena egiteko. Agian utopikoa sontatu dezake, baina epe ertain/luzera, askoz hobeto dela uste dugu, mugimendu sozialek askoz indar eta sostengu gehiago izango bait dute horrela.

● **Denok garrantzi berdina dugu, inplikazio maila kontutan hartu gabe.** Beraz, aurreko puntuarekin jarraituz, egokiena litzateke bakoitzak bere motibazioaren bitartez parte hartzea proiektuetan, inolako presiorik gabe. Horregatik, proiektu honen barruan, denok dute maila eta eskubide berdinak, nahiz eta batzuk inplikatuagoak egon. Honek ere arazoak ekar ditzake, noski, baina honek ikuspegi positiboa ematen dio proiektuari, ez negatiboa, gehitzean dago gakoa beraz. Gainera, logikoa denez, aktiboagoak daudenak, protagonismo gehiago izango dute, laburbilduz, proiektua *autoregulatu* egingo da.

● **Diru kontuak, kontabilitatea,… zer da hori?** Kontu honetaz ere hitzegin dugu, "motor" bat martxa dago jada *KA* plataforman. Beraz, partaideak ahaz daitezke papeleoen kontuekin. Kide gehienak artistak dira, ez dute kontu administratiboetan parte hartu nahi, eta nahi izanez gero, *diruzaintza talde* bat sortuko litzateke. Beraz, kideek lasai egon daitezela, eta nahi dutenean parte hartu dezakete nahi dute moduan, motorra martxan jarraituko eta.

# 8. DATOZEN ERRONKAK

Proiektuaren erronkei dagokionez, ez dira gutxi egia esan. Azken finean proiektu honekin ez da proiektu zehatz baten bilakaera garatu nahi, baizik eta Donostialdeko (eta ondoren, Euskal Herriko) kulturaren egoera garatu eta eraldatu nahi da, *behetik hora* esan ohi dugun bezala.

Eraldaketa aktiboaren bitartez, kultura alternatiboa *ahaldundu* nahi dugu, azaleratzea landu nahi dugu, kultur arlo hau gizartean presenteagoa egotea da helburuetako bat. Lan honetan zehar azaldu dugu nola egin nahi dugun hau, eta jada garatutako ibilbidearen bitartez, asko ikasi dugu erronka honi nola heldu ahal diogun. Jakin badakigu ez dela proiektu erreza, ezta gutxiagorik ere, baina hori ere bagenekien hasieratik.

Noizbait galdetu digute ea proiektu "*korsario*" bat ote garen, hau da, ea libreki ibili nahi dugun eta aldi berean Instituzioetatik dirua *"lapurtu"* nahi dugun. Noski libreki ibili nahi dugula, baina lapurtzearen kontzeptua ez zaigu gustatzen, ezta gutxiagorik ere. Instituzioak jende guztiarenak direla aldarrikatu nahi dugu, eta hauekin elkarrizketa iraunkor bat garatu nahi dugu, eta ez diruarengatik. Garrantzitsua ikusten dugu eragile publiko eta pribatuekin hitzegitea eta elkarezagutze bat garatzea, oso positiboa delako gizartearen kultur ingurunearentzako.

Kultura alternatiboarekin dauden aurreiritziak suntsitu nahi ditugu: askotan ematen du kultura alternatiboak beti errekurtso faltan, modu marginalean eta sistemaren aurka joan behar duela, baina askotan kontzeptuak nahastu egiten direla uste dugu. Ofiziala ez den eta merkatutik aparte dagoen kultur guztia, librea, kritikoa eta bere kabuz ibiltzeko joera du. Hau arrazoi ezberdinengatik gertatzen da: beharrarengatik, pentsamendu propioarengatik (eta ondorioz, kritikoa), politika arraozoiengatik, Instituzioen oztopo legal eta bestelakoengatik, eta abar. Baina honek ez du esan nahi kultura alternatiboa Instituzioekin edota merkatuarekin kolaboratu ez dezakenik, azken finean askatasuna, eta ondorioz pentsamendu kritikoa izatean datza gakoa.

*Irudia: ResaKA Jaialdian egindako kalejira (Antigua Auzoa, Donostia)*




*Iturria: http://kulturaalternatiboa.com/*

Gauzak horrela, erronkei hauei aurre egingo diegu aurrerantzean:

● **Barne- erronkak (Plataformaren baitan)**

- Plataforma sozialiatzea
- Sarea handitu ahal dugun heinean
- Partaidetza estrukturala sustatu *KA*-n
- Baliabideen lorpena (mota guztietako baliabideak)
- Gizartearen *Kultur Plaza Irekia* batean bilakatu
- Askatasuna eta pentsamendu kritikoa bermatu platafroman
- Eta abar.

● **Kanpo-erronkak (Ingurunean)**

- Oinarrizko kulturaren normalizazioa eta nabarmentzea gizartean
- Herritarren ahulduntzea beren komunitateko kulturan parte hartzea
- “Behetik gorako” kulturaren garapena
- Artearen normalizazioa espazio eta ingurune guztietan
- Konzientzia esnatu eta pensamendu kritikoa ezarri gizartean
- Instituzio - politiken sozializazioa
- Eta abar.

*Irudia: Maddi (Kantautorea) @ KA 1 Urte ArtFest (KA 1. Urteurrena)*



*Iturria: http://kulturaalternatiboa.com/*

# 9. LANAREN BALORAZIO PERTSONALA

Lana hasi dudan bezala bukatuko dut, proiektu honek niretzako zer nolako garrantzia izaten ari den adieraziz. Nire ustez argi eta garbi gelditu da lan honetan, aurkezten dudan proiektu hau ez dela bapatean suertatu. Denbora asko pasa behar izan da proiektua gutxieneko ziurtasun batekin aurrera joan ahal izateko, eta ondoren dagokion bezala mantendu eta garatzeko.

Agian lana oso ikuspegi propio eta subjektibo batetik planteatu dut, horrela ikusten dudalako nik plataforma hau. Esan bezala, oso proiektu berezia da niretzako arrazoi askorengatik. Ez dit dirurik edo lanposturik emango plataforma honek, baina beste gauza asko ematen ari zait: lagunak, jakituria, esperientzia, jendea orokorrean nolakoa den ezaguera, kultur inguruaren ikuspegi orokor bat, kudeaketa ezberdinen ikasketa, eta zerrenda luze bat. Baina garrantzitsuena, proiektuan sinisten dudala da dudarik gabe. Bere helburuetan, metodologian, kudeaketan, filosofian sinisten dut itsu itsuan. Horrela ez bada, ez da erraza hainbeste oztopo, ezbehar, eta bestelako arazoak gainditzea proiektua aurrera jarrai dadin.

Egia esan, plataforma honekin hasi eta lehen minututik jakin banekien portzentai haundi batean, proiektua edozein momentutan bukatu ahal zela. Denok jakin badakigu proiektu kolektiboak zein zailak diren aurrera eramaten, beti arazoak egoten dira jendearen artean eta horrek zailtasun asko ematen ditu horrelako proiektuak aurrera eramateko. Baina, agian esperientziak horrek erakutsi dit, alde batetik ez dela ezer pasatzen proiektua bukatzen bada, eta bestetik, ahalik eta hoberen kudeatzen. Denborarekin ikasitako “ikasgai” hauek eramaten didate arazo posibleei aurreratzea, nolabaiteko “seguritate erramintak” ipintzea *KA*-ren ibilbidean, eta hori asko errazten du dena.

Lanaren hasieran komentatu bezala, bizi izandako esperientzia guztien nahasketa da proiektu hau: enpresaritza ikasketak, musika, ekintzailetza, *Xpressionk,* eta abar. Horregatik dauka filosofia hain irekia, soziala, kulturala, baina enpresariala ere bai, kudeaketa zorrotz bat behar bait da horrelako proiektu bat ondo kudeatzeko. Hemen, *Xpressionk*-en askotan erabili dugun esaldi bat datorkit burura: *“Enpresa bezala pentsatuz, artista bezala sentituz"*.

Egia esan, primeran etorri zait lan honen garapena. Introsprekzio lan bat egiteko balio izan zait, baina dena perspektibarekin ikusteko ere bai. Eta benetan orain dena garbiago ikusten dudala. Zergatik nago hain motibatuta proiektuarekin, ahultasunak, indarguneak, zer nolako bidea hartu dezakegun hemendik aurrera, etorkizuna nola planteatu,…

Saiatu naiz lan honetan *KA* bere osotasunean erakusten, eta batez ere kontzeptua zer den ondo azaltzen, agian gehiegi errepikatu naiz, baino jendearekin izandako esperientziengatik izan da (askotan ez da garbi gelditzen zer den *KA*). Bere izaera soziala, baloreak, funtzionatzeko modua, helburuak, izaera ekonomikoa, administratiboa, eta abar azaltzen saiatu naiz, eta uste dut nahiko garbi gelditzen direla ikuspegi guzti hauek.

Gainera, lan hau plataformaren erraminta bezala erabiliko dugu aurkezpen eta dossier moduan, orain arte ez genuen horrelako txostenik proiektua aurkezteko, eta lan hau primeran etorriko zaigu gure garapenerako.

Agian pixkat motz gelditu naiz bibliografia erreferentziekin, gustatuko litzaidake autore gehiagoren erreferentzia gehiago erabili izana, baina lanaren ezaugarriengatik kostatu zait autore gehiago gehitzea.

Bukatzeko, nola ez, Eduardo Malagón irakasleari nirekin izandako eskuzabaltasuna eta sostengua eskertu nahi nioke. Lanean eta ikasten nabil, eta esfortzu asko suposatu dit lan hau garatu ahal izatea, eta Eduardoren laguntza ezinbestekoa suertatu zait.

# 10. BIBLIOGRAFIA


▪ **Bauman, Zygmunt. (1999)**. *Modernidad líquida*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

▪ **Herman, Michael. (2012).** Gune Irekiko teknologia. *Zer da Gune Irekiko teknologia?* Iturria: ***http://openspaceworld.org/wp2/what-is/eusk/***

▪ **Molina, César Antonio. (2010).** *La cultura sin cultura.* El País Egunkaria: Iturria: ***http://elpais.com/diario/2010/11/25/opinion/1290639612_850215.html***

▪ **Mosterín, Jesús. (2009)**. *La Cultura Humana*. Espasa Forum. ISBN: 978-84-670-3085-3

▪ **Nazio Batuen Erakundea. (1948).** Paris. *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.*

▪ **Osterwalder, Alexander. (2004**). *The Business Model Ontology* - *A Proposition In A Design Science Approach* (tesi doktorala). Berreskuratzea: ***http://www.hec.unil.ch/aosterwa/PhD/Osterwalder_PhD_BM_Ontology.pdf***

▪ **Owen, Harrison. (2008).** *Open Space Technology*. Oakland: Berrett-koehler Publishers, Inc.

▪ **Radulescu, Mihaela. (2012).** *Cultura oficial y cultura alternativa: las huellas beat.* Iturria: ***http://modernidadycontracultura.blogspot.com.es/2012/08/cultura-oficial-y-cultura-alternativa.html***

▪ **Toffler, Alvin. (1980).** *La Tercera Ola*. Bogotá, Colombia: Plaza & Janes Editores

▪ **Weber, Gunthard. (1993).** *Constelaciones organizacionales.* Iturria: ***http://docplayer.es/9649037-Gunthard-weber-constelaciones-organizacionales.html***

# 11. ERANSKINAK

## *11.1 Hainbat proiektu*

● ***100KA***

#100KA proiektua, Energia-Olatuen (*DSS2016*) laguntzarekin eta *KA* promozionatzeko intentzioarekin, 2016 urtean 100 ekimen artistiko gauzatzean oinarritzen da. Horrela, espazio, artista eta eragileen sarea handitu egingo da, 2017 urteari begira, *KA* sendotzeko. Gainera, bide batez, plataformako kideak sustatuko dira ekimen hauen bitartez.
Info: *http://kulturaalternatiboa.com/100ka/*
Egitarau osoa: *http://kulturaalternatiboa.com/*

*Irudia: Ernesto eta Mario Simancas, 100KA-ren emanldi batean*




*Iturria: Iturria: http://kulturaalternatiboa.com/*

● ***KA Zuzenean***

*KA Zuzenean* ekimenak, *KA*-ko kideak beren artean ezagutzeko eta *KA* plataforma ezagutarazteko egiten diren jaialdiak dira. Ekimen hauek, arte diziplina ezberdinak jorratzen ditu: antzerkia, musika, magia, arte plastikoak, umorea, artisautza, eta abar. *KA*-ren izaera primeran erakusten dituzten jaialdiak dira, eta espazio oso anitzetan ospatu ahal dira: aretoak, plazak, kaleak, kultur etxeak,…

Info: *http://kulturaalternatiboa.com/kazuzenean-2/*

*Irudia: Marsel Magoa @ KA Zuzenean#2 (Doka Antzokia, Donostia)*




*Iturria: http://kulturaalternatiboa.com/*

● ***KA Fanzinea (KAzeta28)***

*KA* urte bat betetzear zegoela, zuzeneko emanaldiez eta hilabeteroko topaketez gain beste pausu bat eman nahi genuela konturatu ginen. Eta urte osoan zehar biltzen joan ginen pertsona guztion ideia eta proiektuak oraindik gehiago ikustarazteko, hoberena fanzine bat sortzea izango zela erabaki genuen. Plataformako kide batzuk bildu ginen azpi-proiektu hori garatzeko, eta hilabeterokoa izango zela erabaki genuen, konkretuki hilabete bakoitzeko 28. egunean aterako zela. Eta hortik jarri genion izena fanzineari: *KAzeta 28*. Edozein aldizkariren atzean dagoen ekipo batek dituen rolak banatu genituen gure artean eta, zenbait aste eta lan gogorraren ostean, lortu genuen fanzinea argitratzea.

Info: *http://kulturaalternatiboa.com/fanzine/*

*Irudia: KAzeta28-ren aurkezpena (Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia)*



*Iturria: Irutxuloko Hitza*

● ***GazteKA / Gure Begiradak***

*Gure Begiradak* Esther Uriak garatutako esku-hartze programa bat da eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen Bizikidetza Positiboa suztatzeko, Antzerkiaren teknikak- berritze kurrikular proposamen bezala- erabiltzen den programa baten diseinu, garapen eta ebaluaketa ikerketaren barruan kokatzen da.

Ikerketaren zati funtsezkoena "*Gure begiradak*" proiektuaren garapena da. Helburu nagusiena ikasleen elkarbizitza garatzea da antzerkiaren teknikak erabiliz. Ikerketa honetan 160 ikaslek parte hartuko dute gutxi gora-behera honako ikastetxeetan: IES Hirubide BHI (Irun), IES Bidebieta BHI (Donostia), IES Lasarte-Usurbil BHI (Lasarte), IES Itzio BHI (Eibar). 2016ko Urtarriletik Maiatzera bitartean, tutoretza eta hiritartasuna espazioan kokatutako den 15 saiotako sekuentzi didaktiko bat da.. Saio hauetan, antzerkiak eskaintzen dizkigun teknikak erabiliko dira bizikidetzan sortzen diren hainbat gertakari, arazo edo gatazkak kudeatzeko. Euren intereseko gaietatik habiatuta eguneroko gertakariak aztertzeko eta debatitzeko aukera izango dute antzerkiaren dinamikak erabiliz. Prozesu hau, gazteek eraikiko duten Antzerki Foru baten emanaldia eskainiz amaituko dugu. Eta ikastetxeko komunitatea gonbidatua izango da: ikasleak, irakasleak, familiak. Proiektu hau belaunaldien arteko eta kultura anitzeko elkarrizketa ahalbidetzen duen proposamen bat da. Gazteekin lan egitea, gizartearen oinarriekin lan egitea da. Helburua beraiei ahotsa ematea da elkarrizketa eta bake guneak eraikiaz, non begiradak ireki eta elkarbizitza sustatuko duen errealitate berriak entsaiatu. Gure proposamena, antzerkiaren bidez eta ezberdintasun guztien gainetik, pertsonen duintasuna bermatzen duen testuinguruak sortaraztea da.

Info: *http://kulturaalternatiboa.com/gazteka/*

*Irudia: GazteKA ekimen baten kartela*




*Iturria: http://kulturaalternatiboa.com/*

● ***Stop War Festibala (www.stopwarfestibala.com)***

Proiektu hau 3 eragileek antolatzen dute: *Demagun*, *Ginmusica* eta *KA*. Donostia 2016-ren baitan, 2016 urteko Aste Santuan jaialdi antimilitarista bat garatzeko lizitazio prozesu bat ireki zen, eta 3 eragileen artean proiektu bat aurkeztu eta irabazi zen. KA-ren egi beharra proiektu honetan, Jaialdiaren sozializazioa izan da.

*Irudia: KA-k Stop War Festibalean antolatutako dantza akrobatikoa*



*Iturria: http://www.stopwarfestibala.com/eu/*

● **EGITARAUA *(Stop War Festibala)***

**16-03 ASTEAZKENA**
10:30| VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Topaketa / ikasleen testu bateratze lana

"Gerrarik gabeko etorkizunaren diseinua"

**24-03 OSTEGUNA**
19:30| 2016 GUNEA

"Hain gertu, hain urrun" Santi Bosch eta Susana

Urquia-ren arte proiekzioak, gerran eta biolentzian

oinarrituak. Noga-ren kontzertua.

**25-03 OSTIRALA**
09:00| AIETEKO BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEA

"Gerra hemen hasten da" topaketak

Izen-ematea: gonbidapen@dss2016.eu

13:00| BOULEVARD, KALE NAGUSIA

"Aldarri" gerraren aurkako dantza

eta zuzeneko musika ikuskizuna

BILBO PLAZA / Egeo itsasoa eszenatokia

12:00| KAntautoreak: Autumn , June Calsor eta Nahia

17:30| Ipso Factok aurkeztuta: Cha Cha Chat

Antzerkia

19:00| Funkdamental (Soul,R&B,Funk)

Kontzertua

12:00-20:00| GKE erakusketak

OKENDO PLAZA / Giza Eskubideen eszenatokia
12:00| Slowww: "And the winner is…"

Dantza Antzerkia

17:30| Agifugi:

Sonokay (Flamenko fusioa) +Javier Escuderoren

erakusketa (Luthier)

19:00| Mery May & The Muppets

12:00-20:00| Arte ekimenak

FRANTZIA PASEALEKUA/ Women in Black eszenatokia

12:00| Bazen Behin Clownek aurkezten du:

17:30| Voltaia

19:00| Rolling Dice

12:00-20:00| Artisau eta arte azoka

GERNIKAKO ARBOLA PASALEKUA

12:00-01:00| Munduko janarien azoka

MARIA CRISTINA ZUBIA / ZUBIA ESZENATOKIA

21:00| NIÑA COYOTE ETA CHICO TORNADO (Euskal Herria)

*Irudia: Niña Coyote eta Chico Tornado*



*Iturria: http://www.stopwarfestibala.com/eu/*

22:30| INNA MODJA (Mali)

Kontzertua

*Irudia: Inna Modja*



*Iturria: http://www.stopwarfestibala.com/eu/*

**26-03 LARUNBATA**
UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

11:00| "Gerra hemen hasten da" topaketak

"Hiriak eta udaletxeak gerren aurrean"

Izen-ematea: gonbidapen@dss2016.eu

ASKATASUNAREN HIRIBIDEA/ LOIOLA KALEA

13:00 | "Aldarri" gerraren aurkako dantza eta zuzeneko

musika ikuskizuna

BILBO PLAZA/ Egeo itsasoa eszenatokia

12:00| Ipuin Kantalariak

18:00| Bikarrizketa

Euskarazko antzerkia

19:30| Ttotelka

Txalaparta elektronikoa argiztapenarekin

12:00-20:00| GKE erakusketak

OKENDO PLAZA/ Giza Eskubideen eszenatokia

10:00-19:00| Insert change – Level 1

Aldaketarako bideojokoak

12:00| Donosti Lindy Hop, dantza eta musika

17:00| Urban 13

Graffiti. Hip hop, dantza eta musika

19:00| Argizulo Dub

Live Dub Mix, Dub eta Roots estiloak

12.00:20.00| Arte ekimenak

FRANTZIA PASEALEKUA / Women in Black eszenatokia

13:00| Akrobaziak oihaletan, musika, poesia eta aireko dantza

17:30| Latitud 43

Kontzertua

19:00| Blast Wave

Kontzertua

12:00-20:00| Artisau eta arte azoka

DONOSTIAKO KALEAK

18:00| “Rockalean” Musika ibiltaria zuzenean

hiriko kaleetan zehar

GERNIKAKO ARBOLA PASALEKUA

12:00-01:00| Munduko janarien azoka

MARIA CRISTINA ZUBIA / ZUBIA ESZENATOKIA

21:00| GOSE (Euskal Herria)

*Irudia: Gose taldea*



*Iturria: http://www.stopwarfestibala.com/eu/*

22:30| BOB GELDOF & THE BOOMTOWN RATS (Irlanda)

Kontzertua

*Irudia: Bob Geldof & The Boomtown Rats*



*Iturria: http://www.stopwarfestibala.com/eu/*

**27-03 IGANDEA**

BILBO PLAZA/ Egeo itsasoa eszenatokia

12:00| Marsel magoa / Magia ekitaldia

17:30| Burun Danga

19:00| Ventura

12:00-20:00| GKE postu eta erakusketak

OKENDO PLAZA/ Giza Eskubideen eszenatokia

12:00| Biurrun Musika Eskola

Ikasleen kontzertua

16:30| Markus K & Iban Nikolai

Kontzertua

18:00| Antton Aranburu & Bikiak

12:00-20:00| Arte ekimenak

FRANTZIA PASEALEKUA / Women in Black eszenatokia

12:00| Bertso Saioa

17:30| SorayArte: Perfopoesia Body-Paintarekin

19:00| Mind Trap (Kontzertua)

12:00-20:00| Artisau eta arte azoka

DONOSTIAKO KALEAK

18:00| “Rockalean” Musika ibiltaria zuzenean

hiriko kaleetan zehar

GERNIKAKO ARBOLA PASEALEKUA

12:00-01:00| Munduko janarien azoka

MARIA CRISTINA ZUBIA / ZUBIA ESZENATOKIA

21:00| NICK LOWE (UK)

*Irudia: Nick Lowe*



*Iturria: http://www.stopwarfestibala.com/eu/*

22:30| ESNE BELTZA( Euskal Herria)

**02-04 LARUNBATA**

ANTZOKI ZAHARRA / TEATRO PRINCIPAL

Gerraren kontrako zinema maratoia.

10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 21:30era

– 10:00 – Senderos de gloria (Stanley Kubrick, 1957)

– 11:45 – Stalingrado (Joseph Vilsmaier, 1993)

– 16:30 – El cazador (Michael Cimino, 1978)

– 19:50 – En tierra de nadie (Danis Tanovic, 2000)

### 11.2 Gune Irekiak eta KA Topaketak

Komentatu izan dugu Topaketek *KA*-n duten garrantzia, proiektuaren oinarria direla esan genezake. Jarraian, *KA* modu kolektiboan sortu zituen 2 Gune Irekiak eta ondorengo 16 Topakeak jartzen ditugu. Gune Ireki eta Topaketen akta eta informazio guztia ikusteko: *http://kulturaalternatiboa.com/actas*

**● OPENSPACE #1 (2012/02/11) | OPEN SPACE #2 (2014/09/27)**

**● KA TOPAKETA #1(2014/10/25)**

**● KA TOPAKETA #2 (2014/11/29)**

**● KA TOPAKETA #3 (2014/12/20))**

**●KA TOPAKETA #4 (2015/01/31)**

**● KA TOPAKETA #5 (2015/03/07)**

**● KA TOPAKETA #6 (2015/04/12)**

**● KA TOPAKETA #7 (2015/05/10)**

**● KA TOPAKETA #8 2015/06/14)**

**● KA TOPAKETA #9 (2015/07/26)**

**● KA TOPAKETA #10 (2015/08/30)**

**● KA TOPAKETA #11 (2015/10/11)**

**●KA TOPAKETA #12 (2015/11/22)**

**● KA TOPAKETA #13 (2016/01/17)**

**● KA TOPAKETA #14 (2016/03/06)**

**● KA TOPAKETA #15 (2016/04/24)**

**● KA TOPAKETA #16 (2016/05/29)**

*11.3 Lantaldeak*

- **Komunikazioa:**

  Karmen Salazar

  Ander Morea

  Jokin Telleria

  Sol Busca

  Javi Diaz Maestre

- **Web Diseinu Eta Edukiak:**

  Urtzi Azkue

  Jokin Telleria

  Hodei Ezeiza

  Lorena Segura

  Hristo G. Donev

- **Diseinu Orokorra:**

  Uxue Arruti

  Iñigo Malvido

  Maiara Marth

- **Stop War Jaialdia:**

  Jone Amezaga

  Soraya Garcia

  Jokin Telleria

  David Cuadrado

  Igor Alvarez

  Santi Bosch

  Karmen Salazar

  Susana Urquia

  Rafafa

  Rakel Jun

  Rai Bikandi

  Egoi Carrizo

  Debora Del Rio

- **KA Ikusentzunekoak**

  Aitor Osuna

  Ander Morea

  Aitzol Etxegoien

  Rai Bikandi

  Iñigo Malvido

  Hodei Ezeiza

  Javi Diaz Maestre

- **GazteKA**

  Karmen Salazar

  Esther Uria

  Maddi Noguera

  Maiara Marth

  Mattin Garikano

- **KA Fanzine**

  Uxue Arruti

  Lide Hernando

  Mattin Garikano

  Soraya Garcia

  Jokin Telleria

  Roberto Gomez

  Javi Diaz Maestre

  Kanif Beruna

  Alberto Díaz Maestre

  Hristo G. Donev

- **Plastik@**

  Soraya Garcia

  Santi Bosch

  Iñigo Malvido

  Rosario C. Vidal

  Kanif Beruna

  Amaia Andonegui

  Rai Bikandi

  Ibon Gurrutxaga

  Ekhi Huarte

  Leon Grabiel Jeudi Matxuka

  Jaione Crespo

- **KA Koordinazio Taldea**

  Uxue Arruti (Fanzine)

  Esther Uria (Gazteka)

  Soraya Garcia (Plastik@)

  Hodei Ezeiza (Web Diseinua)

  Rakel Jun (Stop War)

  Jokin Telleria (100ka Ekimenak)

  Iñigo Malvido (Diseinu Orokorra)

  Javi Diaz Maestre (Ikusentzunekoak)

- **KA 100 Ekimenak 2016**

  Iñigo Malvido

  Juan Martinez

  Carlos Maestre

  David Carcedo

  Igor Alvarez

  Ruben Martin

  Sol Busca

  Rakel Jun

  David Cuadrado

  Soraya Garcia

  Roberto Gomez

  Antxon Gutierrez

David Cuadrado

Soraya Garcia

Roberto Gomez

Ander Morea

Rafafa

Jokin Telleria

- **KA Zuzenean**

Jokin Telleria

Mattin Garikano

Mario Simancas

Leon Grabiel Jeudi Matxuka

Ruben Martin

Hodei Ezeiza

David Carcedo

- **Euskara**

Jokin Telleria

Mattin Garikano

Soraya Garcia

Maddi Noguera

Uxue Arruti

Ander Morea

Maiara Marth

Debo Del Rio

- **KA Donostia Kultura**

Karmen Salazar

Debo Del Rio

Maria Del Val

Txema Gonzalez

Rai Bikandi

Aitor Navarro

Soraya Garcia

Jokin Telleria

### 11.4 Partaideak (300)

● **ARTISTAK**

Aitor Navarro (Antzezlea/ Actor)• Oihana Marco (Argazkilaria)• Indigo (Musika taldea)• Blast Wave (Musika taldea)• June Calsor (Bakarlaria)• Abar Aranburu (Argazkilaria)• El Increible Hombre Elefante (Musika taldea)• Iñaki Arizmendi (Margolaria)• Maköki (Argazkilaria)• Rous (Bakarlaria, Idazlea)• Patxi Luque (Bakarlaria)• Hodei Ezeiza / KuLisnotCooL (Bakarlaria)• Padre Lobo (Musika taldea)• Karobi (Argazkilaria)• Aitor Osuna (Bakarlaria)• Purple Explosive Jackets (Musika taldea)• Lisandro Infame (Bakarlaria)• Oskar Benas (Bakarlaria)• Orihen (Musika taldea)• Insohmnio (Musika taldea)• Gabezia (Musika taldea)• Autumn (Bakarlaria)• Esther Uria (Antzezlea)• Behi bi blues (Musika taldea)• Azkaiter Pelox (Bakarlaria)• Buffalo (Musika taldea)• Asun Serra (Monologista)• MBA3 Mikel Bikandi Trio (Musika taldea)• Andres Izurieta (Bakarlaria)• Maitane de los Mozos Blázquez (Abeslaria /• Antzezle / Dantza) Itziar Gonzalo (Makillaje artistikoa)• Ane Urkiola (Ikus-entzunekoak)• Raquel Terceño (Abeslaria)• Jun´s Blues (Musika Taldea)• Javier Paiva (Musikaria)• Rafael Giménez (Musikaria)• Baipass (Musika Taldea)• Víctor Antón (Musikaria)• Manuel Eduardo Berroa (Marrazkilaria)• Daniel Bordonaba (Musikaria)• Imanol Zubiauz (Ikus-entzunekoak)• Izaskun Agirresarobe (Dantzaria , Clown)• Paolo di gianvincenzo (Clown)• Axi Suberbiola (Musikaria)• Aupa Quartet (Musika Taldea)• Antton Aranburu (Bakarlaria)• Iñaki Saratxaga (Ikus-entzunekoak)• Transistores 50 (Musika Taldea)• Ever Level (Musika Taldea)• Rai Bikandi (Ikus-entzunekoak)• Black Cat (Musika Taldea)• Rude Kanka (Musikaria)• Marc Cortadelles (Musikaria , Dantza)• Debora (Ikus-entzunekoak)• Kanif Beruna (Marrazkilaria eta Artesanoa)• Ekhi huarte (Marrazkilaria eta poeta)• Overloud (Musika Taldea)• MindTrap (Musika taldea)• Nagore Etxabe (orotariko artista)• Ezten Giro (Musika taldea)• Claudio H (Bakarlaria)• Moon Fields (Musika taldea)• Liher (Bakarlaria)• Rubia (Musika taldea)• NoNguayaz (Musika taldea)• Nima (Konpositorea)• Mikel Karton (Bakarlaria)• Son Kandela (musika taldea)• Pierrot (Bakarlaria)• Raul Romo (Musikaria)• Psicoacustic (Musika taldea)• Adunia (Musika taldea)• A santo de que (Musika taldea)• Marsel Magoa (Magia)• Taupada (Musika taldea)• Koxka (Musika taldea)• No Komply (Musika taldea)• Unai Iturbe (Argazkilaria)• Urko Menaia (Musikaria)• Maddi (Musikaria)• Arantxa S. Morales (Argazkilaria)• Lorena Segura (Margolaria)• Antxon Gutierrez Ruiz (Musikaria)• Rolling Dice (Musika Taldea)• Urtzi Azkue• & The Funk Junkers (Musika taldea) Andoni (Argazkilaria,…)• Uxue (Diseinatzaile Grafikoa,…)• Soraya (Margolaria)• Innputt (Musika taldea)• Iban Nikolai (Musikaria)• Rafafa (Magoa)• Iñaki Miguel Camio (Musikaria)• The Upper Room (Musika Taldea)• Jefe Chirpa (Musika Taldea)• Sira Coel (Musika Taldea)• Mikel Uraken (Bakarlaria)• Marta Astrain (Margolaria)• Ibon Gurrutxaga (Dj / Margolaria)• Yemen-RA (Musika Taldea)• Maite Carrillo (Argazkilaria/Margolaria/Marrazkilaria)• Deibiz (Antzezlea/Clown)• Low Riders (Musika Taldea)• Guillermo Martinez Patino (Argazkilaria)• Francisco Niño (Marrazkilaria / Margolaria)• Daniel Iglesias (Musikaria)• Red Veil (Musika

Taldea)• Filipe Bittencourt (Musika Taldea)• Aldatzen laguntzen antzerki taldea (Antzerkia)• Herenegun (Musika Taldea)• Siete C (Musika Taldea)• Zita Ayala (Margolaria)• Aitor Bastarrika (Artisautza)• Bide Batez (Musika Taldea)• Julio Unikornio (Bakarlaria)• Agueda (Artisautza)• Rosario C. Vidal (Artisautza)• Tutti Frutti Jazz Project (Musika Taldea)• Zamarra eta Aterkia (Musikaria)• José María Dorronsoro (Musikaria)• Bloody Brotherhood (Musika taldea)• Juan Alvarez (Marrazkilaria)• Legalize murder (Musika taldea)• Pangea (Musika taldea)• Køntrabänd (Musika taldea)• La fabrika de boinas (Musika taldea)• Ekilibristak (Musika Taldea)• Izu nauk (Musika taldea)• Garazi Ureta (Argazkilaria)• Latitud 43ºN (Musika taldea)• Voltaia (Musika taldea)• Selene Martín (Ilustratzailea, Argazkilaria,…)• Daniel Lizarralde Aguirre (Eskultorea)• Lobos de Atar (Musika taldea)• Cristina García (Artisaua)• Karlos Nguema (musikaria,…)• Malvido (Argazkilaria)• Metaldrako (Argazkilaria)• Olatz Salvador (Musikaria)• Keä (Musika taldea)• Eva Cots (Artesanoa)• Ilitz Olano Martin (Musikaria eta Margolaria)• Michael Calleja Nunn (Musikaria)• Aitzol Etxegoien Andoño (Argazkilaria)• Aitzol Yubero (Musikaria)• Burun Danga (Musika taldea)• Thierry Biscary (Musikaria)• Geisiane Maiara Marth (Argazkilaria, Diseinatzale• grafikoa,..) Eider Elorza Lamarca (Antzezlea eta Abeslaria)• Lourdes Elorza (Margolaria, Eskultorea)• Mattin Garikano (Antzezlea / Clown)• Zara (Bakarlaria)• Zalkav• & Wiz John (Musika Taldea) Ben Kone• & The Nyaflor (Musika Taldea) TriTones (Musika Taldea)• Caledna (Margolaria)• Mikel Bermejo (Monologoak)• Francisco Javier (Argazkilaria)• Mikel Moyano (Musikaria)• Nothing Box (Musika Taldea)• Lander Laskibar (Argazkilaria)• Nere Oyarbide (Dantza eta Marrazkigintza)• Carmen Muela (Margolaria)• Daniel Cros y Zaira Franco (Musikaria eta• Bakarlaria) Noche Entre Amigos (Musika Taldea)• Jose San Francisco (Argazkilaria)• Unai Salinas (Graffiti)• Jose Manuel Blanco Fernandez (Musikaria)• Sarai (Makillajea)• Ali de Bali (Moda diseinua)• Alvaro Hortelano (Musikaria)• Anaïs Ladam (Artisautza)• Underneed (Musika Taldea)• Claude Billès(Ikus-entzunekoak/Margolaria)• Tajón Prieto y Los Kuajolotes (Musika Taldea)• Jon Perez (Musikaria)• King Konsul (Musikaria)• Susana Urquia Plazaola (Margolaria)• Jone Amezaga del Frago (Dantzaria)• Tim Dabringhaus (Antzerkia/Zinema)• Imanol Otero (Zinema)• Pj Kahuna (Musika Taldea)• Gorka Daguerressar (Musikaria)• BeHatxeRoja (Musika Taldea)•

- **ERAGILEAK**

Harlem Shuffle (management)• Nana (arte eta diseinu elkartea)• Men of Rock (Kultur Elkartea)• Ramiro Mata (ile-apaintzaile heziketa)• Xpressionk (kultur elkartea)• Gente Que Hace Cosas (Kultur Elkartea)• Red Ribbon Music (Kontzertuak)• Hiru Sounds (Soinu enpresa)• Goxatu (familia elkargunea)• AIBA (produktu diseinua)• Soinua eta argia (soinu eta argi enpresa)• Cactus (Aldizkaria)• Asun Dominguez Akademia (Moda akademia)• Daniel Iglesias ( Gitarra irakaslea / Soinu teknikaria)• La Piazzetta de Gros (Ostalaritza)• Love Invaders (Diseinua)• Sambatuak (Samba eskola)• La Niña Bonita (Sorkuntza gunea)• Gaztelutxo

(Taberna)• Una mama en las nubes (Haurrentzako arropa)• Danena (Taberna)• Tamayo (Paper-denda)• Fnac Donostia (Denda)• Kids•&Us Donostia (Hizkuntz Akademia) Kids•&Us Errenteria (Hizkuntz Akademia) Ambar (Ingurugiroarekiko sentsibilizazioa)• El subespacio (Galeria eta denda)• Hawaii San Sebastian (Denda)• Easo Saskibaloi Taldea (Kirol Klub-a)• • Doka (kafe antzokia)• Altxerri (Kontzertu aretoa)• elkARTuz (sare sozial kulturala)• MPR (Produkzioa eta management)• Touring bar (taberna)• VertigoRock (rock jaialdia)• RealMetalWorld (rock eta metal webgunea)• Baketxuta (elkarte kulturala)• Musikamikaze (Elkarte-Plataforma)• Ipso Facto (Antzerki elkartea)• MetalNorte (Elkartea)• Inforock (musika webgunea)• Eztiphoto (Enpresa, denda)• Judo Club SS (Elkartea)• Urban 13 Kolektiboa (Kultur elkartea)• Amansa (Arte estudioa)• Leize Gorria (Kultur Elkartea)• DBBR Rock (Taberna)• Unodos (Kultura sustatzailea)• Abend (Kafe Antzokia)• Jalgi (Kafe Antzokia)• El Callejón (taberna)• Erdibana (taberna)• Olajauna (taberna)• El txakoli (taberna)• El muro(taberna)• Victoria Cafe (Aretoa)• Slap (Surf denda)• Lali Badiola (Arropa denda)

- **NORBANAKOAK**

